


2008ko urtarrilaren 3a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



Felipe Santamaria
zikiro-jateaz solasean **03**

Elizondarrak joan den urtean 50 urte bete zituen Zugarramurdiko zikiro-jatera joaten. Urteen joanean ohitura zenbat aldatu den kontatu digu.



Agenda 21 Malerrekan eta Leitzaldean **04**

600 bat inkesta eginez abiatu zen Agenda 21 bi eskualdeetan. Horien arabera, Malerrekan osasun zerbitzuak eta Leitzaldean etxebizitza dira herritarren kezka nagusiak.

AITOR APEZTEGIA SUNBILDARRA

28

Oilagor ehizan Nafarroako txapeldun



DENDETAN SALGAI

39,95€

Euskal Artzainak AMERIKETAN

6 DVD



DVD 1- LABURPENAK:
Kalifornia • Nevada

DVD 2- BAKERSFIELD EUSKAL BESTA
(TURRIRIA FAMILIA)

DVD 3- BASQUE HOTEL • SANTA FE JATETXEA
SAN FRANTZISKO EZAGUTUZ

DVD 4- SAN FRANTZISKO EUSKAL ETXEA
SAN FRANTZISKO EUSKAL BESTA

DVD 5- PETALUMA EUSKAL BESTA • RENO EZAGUTUZ
JOXE MALLEA • EZAGORRE FAMILIA

DVD 6- WINNEMUCA
WINNEMUCA EUSKAL BESTA

Eguberri hauetako oparia

{6 DVD kutxa bakarrean bilduak}

"Euskal artzainak Ameriketara" egitasmoarekin, Ttipi-Ttapa Fundazioak gizatalde hori buruzko informazioa jaso eta hedatu nahi du. Sei DVDtan banatuak, 80 pertsonen lekukotasunak biltzen dira, 2007ko uda hasieran AEBetako Kalifornian eta Nevadan zehar hiru astez egindako elkarrizketak.

libilbideari hasiera emateko, Bakersfieldeko (Kalifornia) euskal bestan egon ginen. Maiatzaren 27an izan zen hari. Mila lagun ingururen topaleku bihurtu zen Kern Count Basque Cluba. Gehienak baztandarrak, baina baita inguruko bertzeherrietatik joandakoak ere. Bakersfieldetik Fresno, San Frantzisko, South San

Frantzisko... eta Petaluma, eta hor, Euskal Etxeak antolatutako bertze besta baten lekuko izan ginen. San Frantziskoko Euskal Etxearen 25. urteurrenaren harira egindako besta izan zen Petalumakoa. South San Frantziskon, AEBetako Euskal Etxeen arteko mus txapelketaren lekuko izan ginen. Eta irabazleen artean, sunbildar bat. Eta Kaliforniatik Nevadara: Reno, Carson City eta Winnemucca. Bestarik handiena Winnemuccakoa izan zen, NABOk edo Euskal Etxeen konfederazioak bere urteroko biltzarra baitzuen Winnemuccan.

ttipi-ttapa fundazioa 2007

info@ttipi.net
www.ttipi.net

DATUAK...

- Felipe Santamaria elizondarrak iaz 50 urte bete zituen Zugarramurdiko zikiro-jatera etortzen. Horietan behin bakarrik huts egin du (duela bi urte).
- Duela 34 urte alaba hil zitzaion, otsailean, eta abuztua ailegatzean lagunek zikiro-jatera gateko animatu zuten. Berak ezetz, ezin zuela, lagunek baietz, on eginen ziola. Eta gan zen, eta on egin.
- Aurten besta agurtu duela dio. Baina «ez dakit, beharbada abuztuan iritiz aldatuko dut».



Felipe SANTAMARIA

ARGAZKIA: KORO IRATZOKI

«Garai hartako zikiroa bakanal bat zen, bere sorgin eta guzti»

Koro IRATZOKI

Zein dira zikiro-jateari buruzko zure lehenbiziko oroitzapenak?

Nire aitak eraman ninduen, mutiko mukizu bat baizik ez nintzenean, 15 urterekin. Jende gutti ziren 50 bat lagunedo eta kisu-labearen gainetik apaiz batek bazkaria bedeinkatu zuela oroitzen naiz. Argentinatik zikiroa erretzeko usaia ekarri zuten lehenbiziko erretzaileak ezagutu nituen orduan: Domingo Pery, Santiago Larre... Orduan ez zen piperradarik ematen, eta kafea leizean berean kraskatzen zen, errota-makina haundi batekin. Oroitzen naiz *Cognac*-a saratarrek ekartzen zutela, bizkarrean kargaturik zurezko kaja batzuetan.

Melona eramateagatik ezagunak zireneten?

Bai, zikiroan banatzen den gasnaz gain, guk postre bezala melonak ere eramaten genituen, guretzat eta bai langileen artean banatzeko ere. Emakumezkoak erakartzeko ere izugarri baliokoak ziren... Errekan uzten genituen fresko mantentzeko, eta behin ebatsi egin ziguten. Jakin genuen nor izan ziren, eta eztabaida haundia sortu zen.

«Baztandarren Biltzarrarekin bezala, herritarrentzat zen besta izatek, herritarrek kanpotarrei eskaintzen dieten besta izatera pasatu da Zugarramurdiko zikiroa»

Eskarmentu bezala, 75 franko kobratu genizkien. Ongi egin zuten diru hori ordainduz, erretzaileek eztabaida hurbildik segitu baitzuten, makilak prest.

Zergatik zure fidelitatea bestari?

Herritarrek eman didaten tratua gatik: eskuzabalak dira bazkarira gaten garenekin, ongi zaindua sentitu naiz. Jende aunitz eraman izan dut besta horretara, segur bainintzen denek gustukoa izanen zutela, eta hala izan da beti. Barkatu, beti ez: 1968 urtean telebistan famatua zen Torre Bruno eraman genuen. Sekulako mozkorra harrapatu zuen, eta ez zela toki hartara gehiago gain erran zuen. Garai hartan Frantziako kantari famatua zen Claude Francoisen *Chicas clo-clo*-etako bi ere eramaten genituen, bat zuria eta bertzea beltza. Hauek bai ongi pasatu zutela...

Lehen gaizki ikusia omen zen emakumezkoak zikiro-jatera gatea...

Emakumezkoak betidanik etorri izan dira, baina ez hemengoak, mugako bertze aldekoak baizik. Garai hartan bertze aldeko emakumeak hemengoak baino lotsagabeagoak ziren. Bakanal bat izaten zen, bere sorgin eta guzti, bainan modu modernoan. Pornografia puntu batekin. Behin sekulako takonekin etorri zela andre bat, eta espartin batzuk erosi behar izan zituen. **50 urteotan, zertan aldatu da zikiro jatea?**

Baztandarren Biltzarrarekin gertatu den gisan, herritarrentzat zen besta izatek, herritarrek kanpotarrei eskaintzen dieten besta izatera pasatu da. Eta horrekin batera zikiro-jatea nolakoa den galtzen doa. Jakin behar da nola zerbitzatu behar den, pittaka-pittaka hartuz, janaria ez hozteko eta bere puntuan jateko, hondatu gabe.... Jende berriak ez daki halakorik. Nahi den guztia hartzen ahal denez, gehiegikeriak ere izaten dira: ikusi izan dut haragia zaku batean sartzen etxerat eramateko, zakurrari emateko aitzakiakin... Bai-bai, zakurrari...



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekan egin zen inkestaren ondorioak ezagutzera jende gutti agertu zen Doneztebera.

AGENDA 21 MALERREKAN ETA LEITZALDEAN

Kezka nagusiak: osasuna Malerrekan eta etxebizitza Leitzaldean

Iragarri bezala, Bortzirriak eta Baztanen ondotik, orain Malerreka eta Leitzaldearen txanda ailegatu da. Bietan abian da Agenda 21 proiektua. Eskualdearen gabeziak aztertea da helburua, eta gero behar horiek asetzeko proiektuak zehaztea. Egitasmoaren arduraduna diren Terra-Prometeako teknikariak joan den urteko udan Malerrekako 311 eta Leitzaldeko (Arano, Areso, Goizueta eta Leitzarekin batera, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri 'Mendialdea' izenak biltzen ditu) 310 laguneri inkestak egiten ibili ziren, herritarrek beren herrian eta eskualdean zein premia eta gabezia somatzen dituzten jakiteko. Inkestetatik ateratako ondorioak aztertzeke foroak egiten hasiak dira Malerrekan zein Leitzaldean, baina bietan ere parte-hartze eskasa izan dute. Zergatik ote? Mendialdean, adibidez, elkarrengantik urruti dauden zortzi herri izanik «agian eskualde sentimendua banatua dagoelako» izan litekeela uste dute lantaldean, eta Malerrekan ez dakite zergatik «bilkuretan jendea nahiko geldia dela esan digute».

2008/01/03 • 461. zbk.

Gurutze PIKABEA

Agenda 21ek bi fase ditu: diagnostikoa—gabeziak aztertzeke—eta ekintza plana—proiektuak zehazteke—. Bai Malerrekan eta bai Mendialdean prozesua antzera garatzen ari da. Bietan udan abiatu zen eta bietan diagnostikoaren atalean daude, inkestak egin dituzte eta foroak egiten hasiak dira. Lehen fase hori martxo aldera bukatzea espero dute, eta Aste Santua ailegatzean ekintza planera salto egitea aurreikusi dute. Joan den urteko uztailean, abuztuan eta irailean inkesta horiek egiten Terra-Prometeako teknikariak ibili ziren, Zorione Aierbe, Iciar Montejo eta Gurutze Santxo. Eta hainbat izan dira ateratako ondorioak eta datuak. «Gure lana aholkularitza lana da, beharrak zein diren zehaztea, eta etorkizunera begira, udalei dagokie Agenda 21ek egindakoa baliabide bezala erabili eta

pausoak ematen hastea», adierazi digu Zorione Aierbek.

KEZKAK ETA ERRONKAK

MALERREKAn, osasun zerbitzuak eta errepideen egoera. Horiek dira Malerrekako herritarren kezka edo erronka nagusiak. Inkestaturako %21,4 eta %12,7rentzat, hurrenez hurren, horiek dira behintzat. Ondotik datoz haurtzaindegia eta garraio publikoaren gabezia, %8,2rekin. Osasun zerbitzuei dagokionean, datu interesgarri bat gaineratu digu Aierbe teknikariak: «kezka nagusia da, baina jendea eskaintzen den zerbitzuarekin oso gustura dago. Jendeak gehiago eskatzen du, edo behar du». Inkestako datuek ere hala diote: ia %82a «oso gustura edo nahiko gustura» dago osasun zerbitzuekin. Osasun arloko zerbitzuekin batera, adinekoei zuzendutakoak dira notarik altuena eskuratu dutenak. Hezkuntzak, euskara zerbitzuak eta bideen garbiketarako zerbitzuak ere nahiko goian dabilta. Notarik kaxkarrena, ordea, garraio publikoak eta udalen eta Nafarroako Gobernuaren ingurumena kudeatzeko zerbitzuak jaso dute.

MENDIALDEAn, ordea, **etxebizitza** da jendearentzat arazo nagusia, eta hala uste du inkestaturako %20,6ak. «Baina argi dago, etxebizitzarena errealitatea orokorra da, ez dela hemengo kontua», dio Zorionek. Bigarren kezka nagusia **tokiko lana eta lanaren kalitatea** (gazteentzat, emakumeentzat eta ezinduentzat) da Mendialdean, inkestaturako %18,4rentzat bai behintzat. Ondotik, garraio publikoan (%7,4) eta osasun zerbitzuetan dauden hutsuneak (%5,2) nabarmendu dituzte herritarrek. Puntuazio mailari dagokionean, edateko uraren hornidura sistemarekin eta 012 zerbitzuarekin daude gustura batez ere herritarrek, baita osasun zerbitzuekin, energia zerbitzuen hornidurarekin, hezkuntza sistemarekin eta ur-hondakinen saneamenduaren funtzionamenduari ere. Konforme ez dauden alorrak, berriz, garraio publikoarena eta emakumeentzako zerbitzuena, bertzeak bertze.

Malerrekako eta Mendialdean arazo edo erronka nagusiak eta zerbitzuek zenbaterainoko onspena duten ondoko grafikoetan ageri dira.

INGURUMENAREKIN ETA NORBERE HERRIAREKIN HARRO

Gabeziak gabezia, argi gelditu den bertez ondorioa da ingurumenarekiko dagoen «maitasuna». «Ingurumena hemen dagoen ondare nagusietariko bat da eta hori jendeak baloratu egi-



ten du». Ingurumena, berdeguneak, parkeak eta lorategiak dira egoerarik onenean dauden inkestaturako araberak. Horregatik edo ez dakigu zergatik, baina Malerrekako eta Mendialdekoak gustura bizi dira euren herrian edo eskualdean. Hala diote datuek behinik behin. Izan ere, inkestaturako %96,4 «hagitz gustura» edo «nahiko gustura» bizi da Malerrekako, eta %99,4a Mendialdean.

PARTE-HARTZE ESKASA

Arazoak eta zerbitzu eskertuenak zein diren zehazteaz gain, bertzelako ondorio interesgarriak ere nabarmendu daitezke. Eta horien artean, bat hauxe: Agenda 21 zer den ezagutzen duena hamarretik bakarra da, %90,7 Malerrekako eta %88,7 Mendialdean. Horren zergatia zein ote den galdetu-

ta zera erantzun digu Zorionek: «Malerrekako ez dakigu zergatik den. Egia da bileretan Malerrekako jendea geldi samarra dela esaten dela, eta edozein ekitaldi dela ere jendea mugitzea kostatu egiten zaiola. Ez dakiguna da, hori berezko izaera duten ala gure akatsa izan den eta gu ez garen jendearengana iritsi». Mendialdean, berriz, parte-hartzea «okerragoa» izan omen da. «Batetik, elkarrengandik oso urrun dauden zortzi herri daudelako taldean, eta bestetik, eskualdeko sentimendua hain argi ez dagoelako. Leitza eta Larraunaldia bi zatitan ala batean egin ere planteatu dugu». Denan den, horrek ez du arduratzen lantaldea eta urtariletik aitzinera berriz ere bilkurak egiten hasteko asmoa dute, eta «espero dugu jendea gehiago mugitzea».

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Iruzurrik ez!

Eskolak

euskaldundu

behar du!

Eskolak Euskal Herrian ikasleen %35 soilik euskalduntzen du.

Ereduen politikek porrot nabarmena jasan dute, aldaketa sakonak eta berehalakoak behar ditugu.

05/06 ikasturtean 107.768 herritarrek Euskararen Erakunde Publikoari, EAEko Hezkuntza Sailari eta Nafarroako Hezkuntza Sailari aldaketa sakon horiek egiteko eskatu zieten beraien sinadura eman. Zein izan da erantzuna? Euskalduna izateko eskubidea bermatu ezin duten lege eta plan berrien aukera mahai gaineratzea.

Euskal Herrian Euskaraz-ek, Max Brisson, Tontxu Campos eta Carlos Perez Nievasi aski dela erran nahi diegu. Kokoteraino gaudela iruzur eta inposaketek, herritarren hitza eta eskolak euskaldundua izateko eskubidea ez dutelako bermatzen zuen politikek.

Hau guztia salatze, POSTAL SINATZE KANPAINA martxan dago Baztan eta Bortzirie-

tako hainbat txokotan. Honela, salaketaren bidez, euskaldunduko duen eskolaren alde Euskararen ofizialtasuna bermatzeko eta Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeke konpromisoa hartu dugula adieraziko dugu.

Baztango EHE

Eskerrak Saharar

Herriarekin

Elkartasun

Taldearen izenean

Baztan, Malerreka, Bortziriek eta Leitzalde eskualdeetako Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeak bere esker ona eman nahi dizue 2007ko udako Oporrak Bakean proiektuan, haur sahararrei uda hemen, gure etxeetan pasatzea ahalbidertzen dien proiektuan, alegia, laguntza solidarioa eman duzuen guztioi, zuek gabe ezinezkoa izango baitzitezagun eginkizun hori aurrera eramatea. Asko eta asko izan zarete laguntza horren emaitza eta publikoki eskertu eta

errekonozitu nahi zaituztegu.

Baztanen: Baztango Udala, Osasun etxea, Foto Mena, Axular, Fantxike, Bidelagun elkarte, Xaloe telebista, Xorroxin Irratia, Arizkungo Uxo eta Ordoki likoreria jatetxeak, Elizondoko Casa Galarza, Kortarixar, Eskisaroi eta Itzalarbigiko borda jatetxeak, Elbeteko ostalua eta Oñaska jatetxea, Mu-gaireko Pierresenea, eta Gartzaingo Fransene jatetxeak.

Bortzirietan: Lesakako Udala, Berako Udala, Etxalargo Udala eta Igantziko Udala, Ttipi Ttapa, Lesakako Koxkonta eta Kattu jatetxeak, Etxalarko Herriko Ostalua eta Elutsa Ostalua eta Igantziko La Villa jatetxea.

Mallerrekan: Zubietako Udala, Doneztebeko Udala, Doneztebeko Mendia Botika, Mankomunitateko Zerbitzuko Bulegoa, Euskadiko Kultura, Casa Ostiz, Kamamila arropa denda, Iturengo Herriko Ostalua, Altxuenea erretegia eta Aurtizko Ostalua, Oizko Ostalua, Beintzako Ostalua, Elgorriagako Hilario jatetxea eta Doneztebeko Belarra jate-txea.

Leitzaldean: Leitza-ko Udala, Euskadiko Kultura, Harakindegia jate-

txea, Sagasti jatetxea, Erreka Sagardotegia, Hiruso ostalua, Musun Zahar eta Beatrizenea jatetxea.

Eta azkenik, nola ez, lau eskualdeetako harrera familiei.

Norbait aipatzea ahaztu badugu, gure barkamena, ez baita hori gure intentzioa izan.

Beraz, guzti guztioi, Saharar Herriarekin Elkartasun Taldearen izenean, gure eskerrik beroena, ongi izan eta hurrena arte.

Saharar Herriarekin Elkartasun Taldea

OHARRA

Eskutitz guztiekien batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

bortzirUDI
bortzirudi@telefonos.com

KARTELAK - KANPAINAK - BIZIKAK - TOSKATIAK (Nahi duzun neurri - ibarretan)

FOTOKOPIA DIGITALAK, BULBOITAK, TIRU-BULBOITAK - PLANGAK

ENKUADEKATZAK - PLASTIKAZKOAK - PEPEKIAK - BULEGO MATERIALA

BISEINU GRAFIKIA - LOGOTIPOAK - ERKUTIAK - IMPRENTA

Etxeora: 26. Ekaineko Behe D. - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

ERREKALDE



PLATER KONBARTITZAK

OSTIA


PAITZAK

Ongi pasa bestak!


Tfnoa: 948 630 254 BERA



ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



KULTURA

Kultur Ondarea berreskuratu eta zaintzeagatik sariak eman ditu Cedernak

Saldias, Baztan, Igantzi eta Berako udalek sariak eta aipamenak jaso dituzte

ttipi-ttapa

Nafarroako Mendialdeko ondare kulturala eta arkitektonikoa zaindu eta berreskuratzearen alde egindako lanagatik, hainbat sari eta aipamen banatu zituen joan den abenduaren 14an Cederna-Garalur Elkarteak Amaiurko Errotan, Leader+ programaren barrenean. Azken hau sariketaren IV. edizioa izan da, eta hainbat udalerriren hamar proiektu saritu dira: 6.000 euroko lau sari eta 2.000 euroko sei aipamen berezi. Guztiek Uharteko Arakilgo Miren Ustaroz Goñiren eskultura jaso dute.

Aitzineko aldiaren bezala, eskualdera ere hainbat sari etorri dira aurtengo ere. **Saldiasko** Udalak, erraterako, 6.000 euroko saria eta eskultura jaso ditu, errota teilatua berritzeagatik. Epaimahaiaren arabera, «*Saldiasko irin-erota herriaren gizarte-eta ekonomia-historiarekin zuzeneko lotura*



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiurko Errotan abenduaren 14an egin zen sari banaketan Saldias, Baztan, Bera eta Igantziko udal ordezkariak jaso zituzten aipamenak.

duen toki-ondarea da». Hala, nahiz eta gaur egun erabilera guttituz joan, Saldiasko Udalak argi du «*erota oraindik ere baliagarria izan daitekeela herritarrei eta kanpotarrei zerbitzua eman, eta topaleku eta harrera-gune izateko».*

AIPAMEN BEREZIAK

Lehiaketan banatu diren 2.000 euroko ai-

pamen bereziak eta eskulturak ere ailegatu dira eskualdera. **Baztanen** adibidez, sagardo dolare barrokoaren proiektuak jaso du aipamena: Jo ala Jo Kultur Taldearen ekimenez, sagardoa egiteko prozesu osoa landu duen egitasmoak. Zaharberitutako dolarea XVIII. mendearen azken laurdenean erakia izan zen. Garai har-

tan etxebizitzaren egituraren hainbat aldaketa egin ziren, baina aldatuta horiek baino lehenago dolare gotiko bat omen zegoen. Erreforma-lanetan bertze erakina egin zen, sagardoa egitera bideratua, eta horretarako hiru torlojuak prentsa berria erabili zen. XIX. mende bukaera edo XX. mende hasiera aldera, ordea,

alde batera utzi zen dolarea. Jo ala Jo Kultur Taldeak ondare hori berreskuratu nahi izan zuen, eta hori da, hain zuzen, aipamen honetan saritu dena.

Bertze aipamen berezia **Igantzi**ko Udalak jaso du, Ankulutsako (Haraneko elutsa) ikuztegia berreskuratzeagatik. Nahiz eta gaur egun ez diren garbitzeko erabiltzen, Igantziko Udalak ondarea zaintzeari «*arreta berezia*» eskaini izana nabarmendu du epaimahaiak, «*halako jarduerak herria suspertzen laguntzen dutelako, garai bateko bizimoduaren berri emanez».*

Berako Udalarentzat izan da eskualdera etorri den azken aipamena, Uxaneko zubia birmoldatzeagatik. Hartziko zubia Garaitarreta auzorako pasagunea da eta hori berreskuratze-ko erakutsitako interes berezia izan da Cederna Garalur Elkarteak nabarmendutakoa.

 **PRIM, c.b.**
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

 **Zalain**
jatetxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa 1/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

LEGARRA

ESKOLAKO MATERIALA

PRENTSA



Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • **LESAKA**

BERA

Mingain urdinaren eritasunarekin bi kasu agertu dira herrian

Martxoaren 31rako aziendak guztiek txertoa bi aldiz jasoko dutela iragarri dute

Amaia eta Ainhoa

Azaroa hasieratik egindako ardi eta behi-aziendaren ikuskapen klinikoaren ondotik, Nafarroako Gobernuak Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak Nafarroako iparraldean mingain urdinaren 11 kasu aurkitu ditu zortzi ustiategi ezberdinetan. Kasu horietako batzuk gure eskualdean aurkitu dira: bi Beran, bi Lesakan, hiru Goizuetan eta kasu bakarra Leitzaan.

Oartzunen gaitza zuten buruak aurkitu ondotik, 20 kilometroko bueltan dauden Nafarroako ustiategietan kontrolak egiten hasi ziren. Geroztik, 374 ustiategi bisitatu dituzte. Emaizten arabera, 10 behi eta ardi bakar batak positiboa eman dute proban. Momentuz, 685.000 arditik 145.000 txertatu dituzte, eta hauetatik 18.000 bigarren aldiz txertatuta daude. Aurreikuspenen arabera, martxoaren 31rako aziendak guztia bigarren aldiz txertatua egotea espero da. Honek guztiak 400.000 euro baino gehiagoko kostua ekarriko du, baina Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du gaitza.



ARGAZKIA: GOIKO

Olentzerori ongi etorri beroa

Abenduren 24an Olentzero gurekin izan genuen. Urte zaharra agurtu eta urte berria hasi dugu dagoeneko. Orain, Eguberriek akabera emateko, Erregeei ongi etorria ematea gelditzen zaigu. Urtero bezala, Errege Kabalgata Altzatetik Herriko Etxeko Plazara abiatuko da. Jaiotza biziduna Eztegarra pilotalekuan izanen da eta erregeek herriko karrika desberdinak zeharkatu ondotik Herriko Etxeko Plazan Berako haurrei harrera eginen diete. Kabalgata atera aurretik, 15:30etik aitzinera, pajeak herriko karriketara ibiliko dira guztion gutunak jasotzen.

Bortzirietako Haur eta Gazte Ipuin Lehiaketako sariak

Abenduaren 14an Liburutegian egindako ekitaldian banatu zituzten Bortzirietako Haur eta Gazte Ipuin Lehiaketako sariak. Aurkeztutako lanen kalitatea aztertu ondotik sari batzuk Beran gelditu ziren.

DBHko 1 eta 2. mailakoen artean, Berako Jon Iturriaren *Maiatzak 27* idazlanak jaso zuen lehenbiziko saria; bigarren saria Garazi Conderentzat izan zen, *Rubanako liburu beltza* lanarengatik eta hirugarrena Patrizia Etxegaraiarentzat. *Holandako hamabi mutilak* ipuinarengatik. Hirurak Labiaga

Ikastolakoak dira.

Lehen Hezkuntzako maila nagusian, irabazlea ere beratarra izan zen, Jokin Pinatxo. Labiaga ikastolako 6. mailako ikasle honen *Riskiren ametsa* saritu zuen epaimahaiak. Mairrena berean, hirugarren Labiaga Ikastolako 5. mailako Aritz Ibarra gelditu zen, *Mikelen abenturak*

izeneko lanarekin. Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, irabazlea Uxue Anzizar Labiaga Ikastolako 4. mailako ikaslea izan zen, *Leku batetik bestera* ipuinarengatik. Hirugarren saria Labiagako 4. mailako Asier Osentzat izan zen, *Nire opari polita* ipuina idazteagatik.

'Instantean' ikuskizuna

Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, Lamixine BATek ikuskizun berezia antolatu du urtarrilaren 13rako. *Instantean* du izena eta mugimendua, dantza, musika, bideoa eta inprobisazioa uztartzen dira. Kultur Etxean izanen da, 19:00etan eta sarrera hiru eurotan.

Toki Onako zarea

Etxalarko Oiarburu baserriari laguntzeko Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak abenduaren 21ean zozketatu beharreko zarea urtarrilera gibeleratzea erabaki zuten, bildutako produktu kopuru handiagatik. Urtarrilaren 8an, goizean eginen da zozketa.

BERA Zere inguruak klase guzietako insektuez (xamorra, zinoarra, ormirro, kukuxa...) eta errotetara xagotuz garbitu nahi baduzu, deit! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 567 • Zelaia: 42 A • BERA

carohe
gaitzologia okindria

of. de estagios 25 bajo 948630899
30700 berri (navarra) www.carohe.net

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

LESAKA

Biurrana eta Onin bideratzeko ardura hartu du Ur-Konfederazioak

Irubide, Sumusa eta Beko Errotako zubiak berrituko dira, bertzeak bertze

Aitor AROTZENA

Biurrana eta Onin erreka bideratu eta ingurumen aldetik berreskuratzeko lanak egiteko ardura hartu du Espainiako Iparraldeko Ur-Konfederazioak. Abenduaren 4an, Gobernuaren Delegazioak Iruñean duen bulegoan bilera izan zuten Koldo Erkizia alkateak, Fermin Altzagari hirigintza zinegotziak, Maiorga Ramirez Nafarroako EAKo presidentek eta Nafarroa Bai ko bozeramaleak eta Jorge Marquinez, Espainiako Iparraldeko Ur-Konfederazioko presidentek, zenbait teknikarirekin batera. Bileran honen ondotik eman zen erabakiaren berri. Modu berean, proiektua betetzen dela segurtatzeko hitzarmena sinatuko dute Konfederazioak, Nafarroako Gobernuak eta Udalak.

ESTATUAK ORDAINDUKO DU OSO-OSORIK

Espainiako Diputatuen Kongresuan Nafarroa Bai koalizioko Uxue Barkos diputatuak udaberriari aurkeztutako proiektuak 2.289.900 euroko aurrekontua du eta bere osotasunean Estatuak ordainduko du. Biurrana eta Onin erre-



ARGAZKIAK: AITOR A.

Batzokik antolatutako XI. paleta-goma txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 22an

Guillermo Antxordoki igantziarra eta Imanol Telletxea «Makatzene» lesakarrak osatutako bikoteak irabazi du Batzokiren XI. paleta-goma txapelketa lehen mailan. Final estuan 30-26 irabazi zieten Mikel Antxordoki igantziarrari eta Auzmendi gipuzkoarrari. Bigarren mailako fialean, Etxeberria eta Ormaetxea gailendu zitzaizen Alustiza eta Ubedari. Heldu den urtetik hasita, Xabi Zozaiaren izena hartuko du txapelketak.

ketako bina lekutan eginen dira hobetze lanak. Irubide inguruan, 300 metroan eginen dira lanak erreka bideratzeko, 24.961 euroko gastuarekin. Irubideko zubiak ere berrituko dira. Aceralia parean ere bertze 300 metroan moldaketa lanak eginen dira. Sumusako zubia ere berrituko da eta berria eraiki, 221.712 euroko gastuarekin. Onin erreka bideratzeko, igerileku in-

guruko 100 metroan zuhaitzak landatuko dira, tratamendua eginen da eta konbentuko zubiak berrituko dira. Erreka bideratzeko, 435.617 euroko gastuarekin. Landazelaian eginen da moldaketa zatirik handiena, 750 metro, Osasun Zentrotik hasi eta Tomase nekoborda bitartean. Erreka bideratzeko, 221.712 euroko gastuarekin. Onin erreka bideratzeko, 221.712 euroko gastuarekin. Onin erreka bideratzeko, 221.712 euroko gastuarekin.

ra eta pasabide berria eginen da. Inguru honetan eginen den gastua 749.493 eurokoa izanen da.

Koldo Erkizia, Lesakako alkatearen ustez, «proiektu hau lehenbailehen egin beharrezkoa da, herria berritzearen artean dagoelako eta uholdeak gertatzeko arriskua dagoelako». Lan hauek esker, herriko hirigintza garatzeko aukera ere izanen dela uste du alkateak.

FLASH

Elizako organoa interes kultureko ondasuna

Nafarroako Gobernuak Interes Kultureko Ondasun izendatu du San Martin de Tours elizako organoa. Parrokiako organoa hagitz egoera onean dago. Zaragozako Roqués anaiek egin zuten 1891n eta 1950 eta 1951 urteen artean, Amezuay y Cia lantegiak moldatu zuten. Pinu zurarekin eta metalezko tuboekin egin da eta adituaren erranetan, «Roquéstarren organo erromantiko tipikoa da, kalitatezko soinua berezia duena». Modu berean, Nafarroako musikaren historiaren tresna garrantzitsua omen da, «organistika eskola izan baitzen eta Etxebeste eta Taberna maisuek bertan ikasi zituzten». Teknikarien ustez, organoaren doinuak aditzeko San Martin elizaren akustikak ere aparteko kalitatea dauka.

Errege Kabalgata larunbatean

Eguberrietako ospakizunak akautzeko, urtarilaren 5ean, 18:00etan abiatuko da Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako Guraso Elkarteek Udalaren laguntzarekin antolatutako Errege Kabalgata. Olentzero eta jaiotza lehiaketak giro ederrean egin ziren, nahiz eta Esparza saria irabazi zuen Olentzeroaren kargaren ondorioz, istripuren bat gertatu.



ETXALAR

Ornoz-Mugairiko Izaskun Gortari udal-idazkari berria

Jende aunitz bildu da aurtengo Eguberrietako ekitaldietan

Joseba eta Nerea

Urteberri On. Joan da zaharra, eta hasi da berria, urtero bezala, Eguberrietako ekitaldi tipiko guztiekin. Abenduaren 24an Olentzero etorri zen bisitan. Herriar parrasta ibili zen kalejiran, arratsaldeko mezaren ondotik, trikitalari eta txistularien laguntzaz. Ondotik, luntxa izan zen Elutsa ostatuan. Jende aunitz animatu zen, baseritarrez jantzita, herriko karriketan barna ibiltzera.

Idazkari berria

Azken 27 urteotan Udaletxeko idazkaria izan den Jose Luis Legarra jubilatatu egin da. Lanpostu hori betetzeko oposaketa lehiaketa martxan jarri zuen Udalak, eta 13 lagunek eman zuten izena. Lehen proba euskarakoa izan zen, eta 13 lagunetatik lau bakarrik aurkeztu ziren. Bat kanpoan gelditu zen, ez bai-

tzuen euskarako ariketa gainditu. Gelditzen ziren hiru hautagaiek proba teorikoak eta praktikoak egin eta gero, Ornoz-Mugairiko Izaskun Gortari Sein izan zen puntuaziorik altuena lortu zuena. Hortaz, bera izanen da datozen urte hauetan Udaletxeko idazkari berria.

JOSE LUIS LEGARRARI DESPEDIDA

Joan den abenduaren 15ean Jose Luis Legarrari bazkari-despedida egin zitzaion La Basque erretegian. Azken urteetan Jose Luis Legarra egindako lanari bukaera eta esker ona adierazteko, udalhautetsiak, azken 27 urte hauetan alkate izandakoak, Udaleko, zabor mankomunitateko eta gizarte zerbitzuetak langileak eta Bortzirietako idazkariak bildu ziren. Denera 30 bat lagun. Bazkariaren bukean udaletxeak eta bertaratu zirenak, 1700 ur-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Haur koadrila ela-ela eskean

Aspaldiko ohiturari segituz, urteko azkeneko egunean etxe eskean ibili ziren herriko haurrak. *Ela-ela, nor da, nor da, ni naiz urte berri, zer dakartzu berri...* bertso zaharrak goiz osoan kantatu zituzten, «*etxeako andre eta nagusiek*» urtatxak ematen zizkieten bitartean. Saskiak ederki beteta, egun ederra pasatu zuten haurrek.

te inguruko Etxalarko armariaren historia kontatzen duen akta berri bat oparitu zioten Jose Luisi.

Herriko trikitalariak ETBn

Joan den abenduaren 24an ETB1eko *Horrrelakoa da bizitza* programan egon ziren herriko trikitalariak. Joseba Olagarairen gonbidapenarekin, Eguberrietako programa berezian parte hartu zuten, hainbat abesti jo eta kantatuz.



ARGAZKIA: TTPIH-TTAPA

Etxalartarrak birziklatzen

Arrakasta handia izan du Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak martxan paratutako birziklatzeko kanpaina berriak. Joan den abenduan partitu zituzten Herriko Etxean birziklatzeko ontziak, eta herritar andana bildu zen edukiontzia jasotzera. Guztira 200 inguru banatu ziren, eta oraindik gehiago banatuko dituztela erran digute Mankomunitatetik.

ETXALAR
Toailak-Manteleriak-Oheko maindireak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta bluz
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu
Etxar Plz. Berriz 4ra eta ikusi bertako erakutsa!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguneroko menua eta
asteburutar menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Ituzia
HIDROERENTZIA
HIDROENBREA
FERRIS WASHINGTONEN
LARRALDEA

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ARANTZA

Ilbeltzaren 17an, 18an eta 19an inauteriak ospatuko dira

Eskolako lagunek borts antzezlan taularatuko dituzte hilaren 11n

Nerea ALTZURI

Gibelean utzi dugu urte zaharra. 2008a abiatu bertzerik ez dugu egin. Gaurkotasunak ez du etenik eta aitzinera begira badugu zer kontatu atal honetan. Hasteko, herriko gazte talde bat inauteriak antolatzen ari da (mozorro zuriak). Aurten aski goiz ditugu, Eguberrietako egunak akautu bezain laster urteroko mozorroaldia ailegatuko da. Aldi honetan hilaren 17, 18 eta 19an egingen dira. Mozorro zuri gazte eta gaztetxoak (eskola-koak) etxez etxe eta baserri baserri puxka-puxka eskean ibiliko dira. Gainerakoan egitaraua oraindik eskuetan ez badugu ere, ohiko ekitaldiekin iraganen dira. Hurrengo alean xehetasun gehiago.

Antzerkiak

Heldu den urtarrilaren 11n hitzordu polita dugu eskolako gimnasioan. Abenduaren 15eko ekitaldia bertan

behera gelditu ondoren, datorren larunbatean zortzi borts antzezlan ikusgai izanen dira eskolan. Abenduaren 12an inguruko herrietako eskolako aitzinean borts taldek euren lanak erakutsi zituzten. Orain, hilaren 11an, eta 16:00etatik aitzinera gonbidatuak gaude.

Bertzalde, eskolako zarearen zerbaki saritua 8.665 izan da eta dagoeneko zerbaki hori atera da. Zare eder horrek jabea badu.

Literatur sariak

Abenduaren 14an banatu ziren Bortzirietako Haur eta Gazteen ipuin Lehiaketako sariak eta horietatik bi Arantzara etorri ziren. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoetan bigarren saria Xabi Tabernak jasozuen, *Denboraren kobazuloa* lanarengatik. Eta 5. eta 6. mailakoetan, Gurutze Iparragirre gelditu zen bigarren, *Komikiko denboraren makina* idazlanarengatik.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Olentzero bizkarrean giro ederrean Eguberriak

Herritar andana animatu zen abenduaren 24an Olentzeroekin herrian barnako ibilaldia egitera. Biharamunean, plazan elkartu ziren herritarrak, eta haurrentzako jokoan ondotik, taldeka, Olentzerorekin kantatu zuten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Xorroxinekoen bazkaria Aterpen

Abenduaren 15eko irudia duzue hau. Xorroxin irriak urtero bere laguntzaile eta kolaboratzaileei bazkari batera gonbidatzen die. Bailaraz-bailara txandakatuz egiten da, eta aurten Arantzan antolatu da. Aterpen 60 bazkaltiar bildu ziren. Bazkaria eta giroa zinez onak izan ziren. Bazkalondan Ibanek bertso bat kantatu zuen eta Xabierrekin batera Mari Karmen Xorroxineko esatari eta lehendakariari oroigarri bat eman zieten Aterpekoen izenean. Xorroxinen partetik «Esker mile!».

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnak: 948 630 735 - 467 406 781

BOBKO
BERRIKONSTRUKTIOA
FRAIN AIZUA - LESAKA
Tfnak: 948 637 826

XIFELLI
Alde 1. 08A
Tfnak: 948 637 466

Larkilana
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEA
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
BERA - Eztegara, 8 behea - 948 625 232

ERROTAR
harategia
Bertako produktua
Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

BORTZIRIAK

Bortzirietako Haur eta Gazte ipuin Lehiaketako sariak banatu dira

Nagusienen mailan Iruñe Elizagoien etxalartarraren idazlanak irabazi du lehen saria

ttipi-ttapa

Joan den abenduaren 14an banatu ziren Bortzirietako Haur eta Gazte ipuin Lehiaketako sariak. Lehiaketa hau Berako Kultur Batzordeak eta Berako Liburutegiaren ekimenada eta oraingoan ere, irudimena, originaltasuna eta hizkuntzaren aberastasuna baloratu dute epaimahaikideek. Idazle gaztetxoek *Denboraren makinan sartu zara...* gaiaren inguruan idatzi behar izan zituzten idazlanak. Lau mailatan banatu zuten antolatzaileek sariketa, adinaren arabera.

A Mailan Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak lehiatu ziren eta lehenbiziko saria Labiaga Ikastolako Uxue Antzizarren *Leku*



UTZITAKO ARGAZKIA

Sari banaketa soila izatetik haratago, baserritik etorritako emakumearen istorioek momentu atsegina pasarazi zioten liburutegira hurbildutakoei.

batetik bestera idazlanarentzat izan zen. Bigarren saria Arantzako Herri Eskolako Xabi Tabernak jaso zuen, *Denboraren kobazuloa* lanarengatik. Hirugarren saria ere Labiagara joan zen eta Asier Ose-

sen *Nire opari polita* idazlana izan zen epaimahaia aukeratua.

B Maila Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailakoen tartea izan zen. Labiaga Ikastolako Joakin Pinatxoren *Riskiren ametsa* gelditu zen le-

henbiziko; bigarren postua Arantzako Herri Eskolako Gurutze Iparragirrentzat izan zen, *Komikiko denboraren makinan* arengatik. Hirugarren saria Labiaga Ikastolako Aritz Ibarrentzat izan zen, *Mike-*

len abenturak izeneko idazlanarengatik.

C Mailan Derrigo-rezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak lehiatu ziren. Labiaga Ikastolako Jon Iturriaren *Maiatzak 27* lanak irabazi zuen lehen saria; bigarren posturako Labiaga Ikastolako Garazi Conderen *Rubanako liburu beltza* idazlana aukeratu zuten; hirugarren saria ere Labiaga Ikastolara joan zen; Patrizia Etxegarairen *Holandako hamabi mutilak* aukeratu zuten.

D Mailan DBHko 3. eta 4. mailakoak aritu ziren, eta saria Toki Ona Institutuan ari den Iruñe Elizagoien etxalartarentzat izan zen. *Gaixotasun sendaezina* idazlana izan zen epaimahaia aukeratuakoa.

Pinturas  Pikabea

Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guztiak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

**2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea**

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel: 948 627 014
Derrigo Plaza, 10 • LESAKA

 **Javier Manterola**

Tekniko instalazioen
Iturgintza • gasa
kalifikazioa

Telefono: 629449602 • BERA

 **USOA**

nekazari
kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 • ETZALAR

SUNBILLA

Giro ezin hobean joan zen abenduaren 22ko gazte bazkaria

10. urteurrenaren harira, Alfredo Arretxeari omenaldi txiki bat egin zioten

Jaione OTXANDORENA

Joan den abenduaren 22an 82 lagun bildu ziren Ulibeltzak elkartearen aurten gazte bazkarian. Lehengo alean aipatu bezala, Alfredo Arretxea sukaldariak antolatu eta prestatzen du bazkari hau. Aurten, bazkari hau prestatzen hasi zela 10 urte joan direla eta, gazte guztien izenean, omenaldi txiki bat egin nahi izan zioten, egiten duen lana eskertzeko. Horretarako bazkalondoren Jalisko Band, Txutxin Ibañez eta Jesus Tapizen mariatxiez gozatzeko aukera izan zuten bertara hurbildutakoek. Mexikar jantzi hoberenaren sariak bi irabazle izan zuten: alde batetik Luzio Irazoki, mexikar jantzia eta euskaldun boneta-



ARGAZKIA: AMAIA ARRETXEA

Olentzero menditik etorria

Abenduaren 24an Euskal Herriko txoko guztietan bezala, Olentzero herrira etorri zen. Aurten mendi aldetik azaldu zen bere asto eta guzti. Jende aunitz azaldu zen Olentzerori ongi-etorria egitera eta berarekin batera Eguberrietako kantak abestuz herriari itzulua eman zioten. Ibilaldiari bukaera emateko, Ulibeltzak elkartearen merienda izan zen eta Olentzerok haur eta gaztetxoei opariak eman zizkien.

rekin azaldu baitzen eta beste aldetik, Jon Antizar, emakume mexi-

karraren jantzia zera-man, buruko trentza eta guzti. Arratsaldean,

Agerralde akordeoilariaren eskutik dantzaldia izan zen.

28 gazte eskean

Eguberri Egunean, urtero bezala gazteak eskean atera ziren. Aurten 28 lagun abiatu ziren, arratsaldean herrian barna eta gauean baserri eskean ibiltzeko asmotan. Halere, gauak aurrera egin ahala, nekearen ondorioz poliki poliki gazte batzuk etxera joan ziren eta horrela, 28gaztetik seik bakarrik lortu zuten azkeneo baserrira iristea.

Errege kabalgata

Larunbatean Errege kabalgata izanen da. Arratsaldeko mezaren ondoren Erregeak eliza atarira etorriko dira goxokiak eta opariak banatzera. Jaiotza ere izanen da, nahi duten gaztetxoek parte hartzeko.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

BEINTZAKO OSTATUA
T. 948 45 00 14
ORBELA

Haur jaiaberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MALERREKA-BERTIZARANA

Patxiku Mitxelena proposatu dute zubietarrek alkatetzarako

Narbarteko kontzejuko ordezkariak Nafarroako Gobernuak izendatu ditu

ttipi-ttapa

Oraindik behin betiko erabakia hartu ez bada ere, Zubietan Patxiku Mitxelena proposatu dute alkate izateko. Joan den abenduaren 9an egin ziren hauteskunde berezietan zubietarrek herria gobernatzea nahi duten herritarrek aukeratu zituzten, eta boto gehien jaso zituena Fermin Etxekolonea izan zen. Honak, ordea, ezezkoa esan zuen. Hala, bigarren botatuena proposatu dute alkatetzarako, Patxiku Mitxelena, lehen ere alkate izandakoa. Zinegotzi kargurako, berriaz, hauek proposatu dituzte: Fermin Etxekolonea, Lino Elizalde, Mikel Beltza Telletxea, Ines Gereka, Gorka Fuentes

eta Periko Santesteban. Eta ordezeko, Pio Elizalde eta Iñaki Etxeberria.

NARBARTEN

GOBERNUAK ERABAKITA

Ez maiatzean eta ez urrian, hauteskundera zerrendarik aurkeztu ezenez, Gobernuak berak izendatu ditu Narbarteko kontzejuko Kudeaketa Batzordeko kideak. Erabaki horren arabera, hauek dira batzordea eratuko dutenak: Itziar Iriarte Agirre, Manuel Iruñarai Aleman, Jose M^a Iriarte Arretxea, Enrique Oteiza Iriarte eta Fco Javier Arretxea Agirre.

Errekaren urte bukaera

Doneztebeko Erreka Kirol Elkartearen ekime-



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekaren zozketa

Bertze hainbat ekitaldiren artean, Erreka Kirol elkarteak Eguberrietako saski eder hau zozketatu zuen abenduaren 22an. Zerbaki saritua 2.907 izan zen. Zorte onekoa zenbakiaren jabea, ez baitu nolana hiko produktu sorta etxeratu.

nez, Mendiaren Eguna egin zuten joan den abenduaren 15ean. Goizean goiz, Leurtzako Zir-kora joan ziren, Bonozorrotz mendia goituz. Eguerdirako Doneztebera itzuli ziren eta «mendizale poteoa» egin zuten eta gero bazkaria Kasino Elkartearen. Bazkalondoren eguneko hitzordu nagusiaren txanda izan zen: Edur-

ne Pasaban mendizale tolosarrak K2ra egindako igoera erakusten duen proiektzioa eskaini tzuen. Gaur egun 14 zortzimilakoak egiteko borrokan dabil Edurne, munduko emakume bakar batek ere lortu ez duen balentria.

Abenduak 24an, Saioara joan ziren mendizaleak, eta Urtezahar Egunean, ohi bezala,

Mendaurrera. Arratsaldean II. San Silbestre lasterketa jokatu zen. Irabazlearentzat saria eta parte hartzaile guztientzat opariak banatu ziren.

Institutuko zozketa

Mendaur Institutuak egindako Eguberrietako zozketan 1.063 izan da saritua.

edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornoak
mantelak
kuxinak
toailak
maindireak



edredoi-azal nordikoak

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ZORIONAK

ITUREN

Errege bezperako ekitaldiarekin akituko dira Eguberrietako ospakizunak

Xabier eta Aimar Olentzeroak

Ainara MINDEGIA

Abenduaren 24 bazkal ondoan herriko haur eta gaztetxoak baserri-tar jantzia jarri eta 15:30ak aldera Aurtizko elkartearen bildu ziren trikitixa, pandereta eta kantuz urtero bezela herriari ohiko itzulia egiteko. Hotzari aurre eginez eta haurtxoen ilusioz itzuli polita egiten zuten. Arraltsaldean bildutako goxoki, pasta... aurreantzean berendu goxo bat eginen dute elkarrean. Aurre 2 olentzero bizidun izan dira Xabier eta Aimar. Eta xintxo bete zuten ibilbidea.

Laster Errege bezpera

Olentzero, Eguberri eta Urtezaharreko ospakizunen ondok, Errege bezperako ospakizuna gelditzen zaigu. Errege bezperan arraltsaldez herriko mutil gaztetxoak joareak jarri eta herriari buelta eman diote. Ilunabarrean

berriz, Iturengo ostatuan afaia izanen da eta afa-londoren lbintza kultur taldeak urtero prestatzen duen zozketaren zenbaki saridunak jakinaraziko ditu. Eta ohi-turak ez galtzeko joariak jarri eta ifauterietan bezela Aurtiz, Zubietan eta Iturenen itzulia emanen dute joaldun guztiak elkarrekin.

Xabier Elizalde Nafarroako klub arteko finalean

Xabier Elizalde iturrendarrak lan fina egin du Nafarroako klub arteko Txapelketan, Aitor Cerezo lesakarra lagun duela. Finalera ailegatu ziren, baina ezin izan zituzten Lizarrako San Migel taldeko Jorge Yaniz eta Auxkin Perez profesional ohia garaitu. 14 eta 22 galdu zuten finala. Nafarroako akituta, Gure Txokoako bikoteak orain Euskal Herriko klub arteko txapelketan parte hartu du.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Kantu eta musika doinuak ederki kantatu zituzten gazte nahiz gurasoek.

Porc D'Or lehiaketan saritua

Joan den urte akaberan ere, Isidro Bazterrik Mutuberria iturendarrak urrezko domina lortu zuen Lleidan egin zen XIV. Porc D'Orlehi-

ketan, bizirik jaiotako en zerrietan. Zorionak.

Zuzenketa

Abenduaren 20ko alean Maika Ariztegi azaroan jokaturako Euskadiko koxkor biltze txapelketan 7 minutu eta

23 segundoko denbora egin zuela aipatu genuen, baina marka hori 2006koa da. Azken saioan ezin izan zuen marka hobetu eta 7 minutu eta 28 segundotan akitu zituen lanak. Barkatu eragozpenak.





Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaga ind. - Baneta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tloa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA

Kontaketa ordulegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordua eskatu

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabetes - Aina - Zizareak - Larru azaleko alergiaz - Buruko mina
Oinen iseria - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:

Miopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi lousok kataraktak

GIHARRÉ ARAZOK:

Bixkortza - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

AZPIEGITURAK

Elizondoraino hedatuko den gasbidea egiteko dirulaguntza eman du Gobernuak

5.717.200 euro emanen dizkio Gas Navarra enpresari lanak egiteko

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 5.717.200 euroko dirulaguntza emanen dio Gas Navarra enpresari, Lesaka-Sunbilla-Donetztebe-Bertizarrana-Baztan gasbidea jartzeko. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zuzendari nagusiari dirulaguntza hori emateko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak. Baimen hori beharrezkoa da, gastua hiru urtez egingen baita. 3,1 milioi euro 2007. urteko aurrekontutik emanen dira, 515.200 euro 2008ko aurrekontutik eta gainerako bi milioi euroak 2009ko aurrekontutik.

Proiektuaren arabera, gaur egun Lesakara



ARTXIBOA

Bera, Lesaka eta Leitzako etxeek badute dagoeneko gas-naturala.

ailegaten den sarera adar berri bat egingen da eta Sunbilla, Donetztebe, Legasako Arcelor lantegia eta herrigunea,

Narbarte, Arraioz, Oieregi, Oronoz-Mugairi, Iruirita, Elizondo eta Elbetera hedatuko da gas naturala.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren ustez egokia da proiektu hau diruz laguntzea, eta es-

kualdeari abantaila haundiak ekarriko dizkielakoan daude. Petroleoaren eratorriak erabiltzen dituzten enpresei guttiago kutsatzen duen erregaiak eskaintzeaz gain, hornidura seguruagoa izanen da.

Enpresa batzuek urrutako gas naturala erabiltzen dute gaur egun, baina garraioa errepidez egin behar da. Horrek hornidura zailtzeaz gain, gasbideko gasarekin konparatuta %10ean garestitzen du produktua. Enpresek ez ezingo, herri haundienetako komertzioek eta etxebizitza partikularrek ere izanen dute energia mota hau erabiltzeko modua, lehen eta bigarren mailako sareak erakiko baitira.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 948 645 475

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Altoate, 5 - Tel: 948 630 083

Josta Mendak
Artsaleku, 3 - IRUN
943 638 223
Prim, 59 - DONOSTIA
943 470 244

- Paseorako kotxe eta aulkiak
- Seaska, moises eta bainarak
- Autorako segurtasun-aulkiak
- Jaiotzako opari zerrenda

LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittorio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LEITZALDEA

'Tabernetan euskaraz bai!' egitasmoa landu dute Urtezahar Egunean Goizuetan eta Leitzan

Bi herrietako udalek eta Kontseiluak garatutako ekimena izan da

ttipi-ttapa

«Taberna honetan euskaraz bai!». Lelo hori bera du Leitza eta Goizuetako udalek Kontseiluarekin elkarlanean garatutako egitasmoak. Leitzaldean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, abenduaren 31n Leitza eta Goizuetako 23 tabernetan, 19:00etatik 21:30era, euskaraz es-

katzen zuen herritarri zizka-mizkak eman zizkioten.

Ekimen berritzailea izan zen. Goizueta eta Leitza izan ziren abenduaren 19an Bilbon aurkeztutako *Euskaraz bai* lelo berria erabili zuten lehen herriak. Izan ere, Kontseiluak 10 urte bete dituen honetan, pauso berri bat ematea erabaki du: «10 urte haue-

tan 'Bai euskarari' oihukatu dugu eta proiektu anitz jarri ditugu martxan lelo honen babesean baina iritsi da pausoa emateko garaia». Hala, *Bai Euskararik Euskaraz baira* egin dute salto. Kontseiluaren arabera, «*Bai euskarari esatea ondo dago, baina euskarak gehiago behar du; 'Euskaraz bai' da behar duena, eus-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekimenaren kartela parte hartu duten tabernetan egon zen Urtezahar Egunean eta aitzinetik.

karaz bai lanean, etxean, tabernan, lagun artean, hezkuntzan, administrazioan...». Leitzaldearen kasuan, Kontseiluaren ibilbide berria tabernekin hasi dute.

Urteko azken egunean, Urtezahar Eguna zela aprobetxatuz, gutzira Leitzako 23 tabernekin egin zuten bat proposamenarekin. Leitzan hauek parte hartu

zuten: Bikoitz, Jubilatua, Leitzarra, Beatrizenea, Peritza, Okabio/Xumutxo, Torre, Txoko, Musunzar, Sagasti, Zirkulua eta Zortziko Labetxea. Eta Goizuetan, berriz, ondoko hauek: Gordea ostatua, Zubi ondo, Txoko, Urrutina, Izkiña jatetxea, Lizardi, Juananetxea, Zabaleta, Goiz Argi eta Amaia Kafetegia.

ARANO

Udalak aurtengo zergen tasa berriak onartu ditu

Azaroaren 29ko osoko bilkuran erabaki ziren

Kontxi KLABER

Joan den azaroaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zituen Udalak aurtengo zerga tasak.

Hirilurren gaineko kontribuzioaren karga tasa katastroko balioaren gaineko %0,30a izango da. Landalurren gaineko kontribuzioaren karga-tasa katastroko balioaren gaineko %0,80a izango da.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko karga-tasa, materialaren %3,5a.

Uraren urteko tasa, etxeko tarifa 60 eurokoa izango da eta industriena 100 eurokoa.

Zaborren urteko tasa, berriz, 60 eurokoa izango da etxebizitzaren kasuan, eta 70 eurokoa industriaren kasuan. Abere bakoitzeko larre tasa ez da kobratuko.

Eguberrietako mus txapelketa

Joan den urtean bezala, abenduaren 22an jokatu zen Kontzejuko tabernan mus txapelketa. 13 bikotek parte



ARGAZKIA: KONTXI

Olentzero

Urtero bezala herriko gazte zein gaztetxoek Olentzerorekin ibili ziren herrian barna.

hartu zuten, eta irabazleak Juan Miguel goizuetarra eta Inaxio oiartzuerra izan ziren. Bigarren postuan, berriz, Iñaxi eta Josune aranoarrak gelditu ziren.

Ganbara guraso eta haurrentzat

Aranoko haurren gurasoek duela gutti Uda-

lari ganbara erabiltzeko eskatu zioten astean bi edo hiru egunez eta ordu pare batez. Bai umeak eta bai helduak elkartu eta txikiak jolas egiteko aukera izan zezaten egin zuten eskaera, zaila egiten baita elkartzea horretarako leku bat izan ezean. Udalak abenduaren 13an

egindako bilera ondoren, baiezkoa eman zuten eta hurrengo astelehenean, abenduak 17, izan zen ganbarako lehenbiziko eguna.

Larreak erretzea

Larreak erre nahi dituzten guztientzat, abenduaren 31n amaitu zen eskaerak egiteko epea.

ARESO

Kirol koordinatzaileak 2008rako kirol eskaintza zabaltzea proposatu du

Mantenu soinketa, aerobika edo yoga egiteko aukera egongo da

Juana Mari SAIZAR

Kirol mankomunitate koordinatzailea astean behin etortzeko udaltxera, ortziraletan 9:00etatik 11:00etara, oharrak, proposamenak eta abar argitzeko. Denbora gutxi darama lanean eta oraindik jendea eta ohiturak ez omen ditu ezagutzen. Horregatik, oraindik psi-

komotrizitatea bakarrik jarri du martxan. Hala ere, 2008rako proposamen batzuk egin nahi ditu, urte berrian kirol jarduera berriak egiteko aukera zabalduz. Mantenu soinketa, yoga eta aerobikaren inguruan inkesta zabaldu nahi du jendearen artean eta bost edo sei laguneko taldea nahikoa



ARGAZKIA: JUANA MARI

Mari Domingiren bisita eskolan

Aurten Olentzero lanpetua zegoela eta, bere lagun Mari Domingi bidali zuen Aresoko eskolara bisitan eta opariak ekartzera.

omen litzateke hasteko. Beraz, argi, urte hasieran sasoiari jartzeko ikastaroak egiteko prest izan.

Anartz Olanoberriz txapeldun

Herriko pilotaria berriro txapeldun izan da. Lizarrako txapelketan, Za-

moranoren kontra 18 eta 15 irabazi zuen, eta Nafarroako Jokoetan Herriandorena lagun zuela, 18 eta 9 irabazi zuen.

GOIZUETA

Udala eta Gobernuaren arteko akordioaren ondoren 71 hektarea aldatuko dira

Zatirik haundiena Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin egingen da

Esteban AROTZENA

Nafarroako Gobernuko Mendietako Departamentuak eta Goizuetako Udalak adostu dute azkenean aurten go neguko landaketa kanpaina. Sartu beharreko landare motei buruzkoa izan da eztabaida gehienbat. Herriaren ekonomiarentzat mendiak duen garrantzia kontutan hartuz, landare produktiboak aldatzearen aldekoa da Udala, ahal den neurrian behintzat. Honek bi oztopo nagusi omen ditu: bat, pinuaren fusarium gaitza dela-eta koniferarik ezin dela landatu, eta bestea, mendi publikoetako birlandaketetan landareen %25a gutxienez hosto zabala izan behar duela.

Datu zehatzetara igaroz esan, 07-08ko neguan (martxoaren 15erako lanak bukatuta izan beharko dute), lau mendi birlandatu direla, 71 hektarea guttira. Burugorriko 26 hek-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Herriko pilotariak finalez final

Zapelik ez dute ekarri oraingoan baina garrantzi haundiko bi finaletan izan dira gure herriko pilotariak azken asteetan. Lizarran buruz burukoa jokatzen zuten Iker Salaberriak abenduaren 9an, eta astebete beranduago Burlatan Ikerrek berak eta Antton Apezetxeak 18 eta 15 galdu zuten Espinal eta Mariezkurrenaren kontra.

tareak eta Gaztainena-ko 11k Nafarroako Gobernuaren gain joanen dira %100ean, eta bertako haritza, sekuoia, astigarra eta urkia sar-

tuko dira, besteak beste. Epeleko txokoko eta Etxolla-Galtzanburuko landaketek tratamendu ezberdina izanen dute. Hauen ardura udale-

txearena da zuzenean eta landare produktiboen proportzioa haundiagoa da, %60an Iruñeak subentzionatuak izan arren. Douglas

izeia, sekuoia, alertze japoniarra eta tuliperoa nabarmentzen dira beste hainbat landare moten gainetik. Abenduaren 19ko plenoan esleitu zituen korporazioak azken bi lote hauek, Etxarte eta Aginagalderi, hurrenez hurren.

Goxali eta Musika Eskolako aurrekontuak onartuak

Herrian indarrean dauden zenbait zerbitzuren ikasturte honetako aurrekontuak onartu berri ditu Udalak: Goxalirena, 4.176 euro, eta Aralar Musika Eskolarena, 9.545 euro, esate baterako. Guraso Elkartek, bestalde, astelehen arratsaldeetarako 5etatik 6etara eskolako frontoia erabiltzeko baimena eskatu zion Udalari. Eskaerari baiezkoa emateaz gain, argirik ez kobratzea erabaki zuten ahobatez Udalbatzak.

Comedias, 8-10
IRUÑA

Non jantzi zure barnealdea

BIDEAN

LEITZA

Orantzarook Maimur lamiaren eta iratxo dantzarien bisita izan du

Bertso eskolakoek lehen agurra egin ondotik abesbatzakoak kantuan ibili ziren Orantzarorekin

Joseba URKIOLA

Euskal Herriko txoko denetan bezala, Orantzarook Leitzaan ere ez zuen hutsik egin. Eguerdi parteko lehen kanpai hotsak entzutearekin batera, herriko txikiak izan ziren beren guraso eta senitartekoak lagun, ikazkin zaharrenek etorrera iragartzen hasi ziren lehenak. Herri osoa kantuz eta alaitasunez zipriztintzen jardun zuten bazkal ordua iritsi arte.

Ordu batzuk geroago, arratsaldeko zazpiak aldera, eguneko protagonista nagusia herriko plazan agertu zen. Lehen agurra, Bertso Eskolako bi mutil gaztek egin zioten eta ondoren Asketa Abesbatzakoak arduratu ziren ikazkinak urtero herrian barna egiten duen espedizioa kantuz hornitzeaz. Bidaia txoa egin ostean, Orantzarook berriro ere plazara gerturatu zen. Bertan, aspaldi leitzarrek ikusteke zeukaten Maimur lamia agertu zen. Bien artean, enparantzaren bihotzean, aurtengo Gabon gauari nortasun magikoa eskaini zion suz eratuta-

ko artelan berezi bat piztu zuten. Hauekin batera, Iratxo Dantzariak ere herrira jaitsi zirela. Lan askotxo egitea suertatu zitzaion. Orantzarook eta Maimurrek bizi eman zioten su bereziaren inguruan dantzatzeaz gain, ikazkinak gau osoan zehar herrian eginiko bidaia argitzatu eta eduki zitzaizkeen zailtasunak argitzen jardun baitzuten.

Arantxa Sagastibeltzaren 'Urrezko Sudurra'ren finalean

Azaroaren 27an Gasteizen egindako finalerdian, Arantxa Sagastibeltza leitzarrek Espainiar estatuko *Urrezko Sudurra* txapelketa ezaguneko final handira sailkatzeko txartela lortu zuen. Gasteizko kanporaketan Leitzako sommelierak, beste 79 partaiderekin batera 100 ardo mota desberdin dastatu behar izan zuten. Honekin batera, sei ardo desberdin deskribatu eta izendapenik ez zeukan ardo kopa zein markatuko zen asmatu behar izan zuen.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Orantzarook eta Maimur elkarrekin egon ziren herriko plazan jendaurrean.

Azkenean esperientzia, usaimena eta zorrea lagun, Arantxak 16 lehiakiderekin batera Madrilerako txartela lortu zuen. Final handia, 2008ko ekainaren 22an eta 23an jokatu da eta leitzarrek aurkari, Espainiar estatuko hainbat kanporaketetan sudurrik finena izan duten adituak izanen ditu.

Zinean arazoak

2007-2008 denboraldiko zine emanaldiek behartutako atsedene bat hartu behar izan dute. Antza, proiektore zaharkituak arazoak izan ditu eta horregatik *Kutsidazu bidea Ixabel* laugarren emanaldiarekin batera, etenaldi bat egin behar izan dute arduradunek.

Orain teknikarien zain daude herrian. Gisa honetako objektu zaharren matxurak konpontzen dituzten tekni-

kari espezializatuak oso gutxi omen dira, eta hala, konpontze prozesuak uste baino gehiago iraun dezake.

Aurrera futbol taldeak txukun amaitu du lehen hiru hilekoa

Leitzako Aurrera futbol taldeak, Erregional Preferenteko zazpigarren postuan sailkatuz eman dio amaiera denboraldiko lehen hiru hilekoari. Lehen jardunaldiko partida galdu eta bigarrena berdindu ostean, Aurrerak sei partida irabazi zituen. Garraipen hauei esker, azaroan une askotan sailkapeneko bigarren eta hirugarren postuetan egoteko ohorea izan zuen. Baina abenduan, zorte txarrenek mamu berezia agertu zen. Merezita edo merezi gabe, urteko azken lau partidak galdu egin dituzte,

eta horrela, bost postu jaitsi dira. Halere, Aurrerako mutilak ekaitzaren ostean barealdia datorrenaren uste horretakoak dira eta gogoz ekingo diote urte berriari.

Leitzarrek Sahararako lur ahanztietan

Azken urteetako ohi-turari jarraiki, pasa berri den abenduko zubian herritar batzuk Sahararako lur areatsu ahanztietan egon ziren. Bost gazte izan dira, Afrikar lurretara joan zirenak. Aratz eta Irati Barandiaran anai-arrebak, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduko lurretan igaro zuten astea, Aaiungo probintzian kokatua dagoen Angala Dairan herrian. Maia, Lorea eta Jon Arantzetan anai-arrebak, Aaiungo probintzian bai, baina Dchera herrian igaro zituzten egunak.

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudu
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

Mailposta Buzoneos
Leitzako bidea, 9 - DONEZTIBE - 948 592 313
Inprimategia, publicitateak, diseinu grafikoa

t tipi
tapa
☎ (0034) 948 635458

BAZTAN

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako eskola egiteko dirulaguntza emanen du Gobernuak

Baztango Udalak 324.992 euroko laguntza hartuko du

ttipi-ttapa

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxearen ondoan erakitzen ari diren 0 eta 3 urtekoentzako Haur Eskolaren egoitzak dirulaguntza jasoko du. Nafarroako Gobernuak 3.675.501 euro ematea onartu du Nafarroako 13 ikastetxetan obrak finantzatzeko, eta horietatik 324.992 euro Baztanera bideratuko dira.

Inguruan dagoen eskaera kopurua haundituz doa eta baldintza egokietan dagoen zentro baten beharrez zegoenez, Nafarroako Gobernuak laguntzarik gabe, Udalak lanei ekin zion. Orain, ordea, laguntza hartuko du.

Baztandar bat hilik agertu zen Mexikon

Elbeteko Fermin Zugarraurdi Irisarri hilik agertu zen hilabete bat bahitua egon ondoren, Mexikon. Familiak negoziatioak akitutzat eman zituenean, bere bila joandakoan bere gorpua hilik harrapatu zuen. Orain kasua ikertzaileen esku dago.

Ferminek 72 urte zituen, ezkondua zegoen eta lau seme-alabaren aita zen. Elbeteko antzinako zentral elektrikoa-ren eraikinean sortua zen, baina duela 50 bat urte Mexikora joan zen okindegiaren sektorean lan egiteko eta han bizi zen familiarekin.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILETA

Munduko 174 jaiotza ikusgai Arizkongo Gorriean
Eguberrietan urtero egiten duten bezala, Xabier Santxotena eta Teresa Lafraguak jaiotzei buruzko *Misterios del Mundo* izeneko erakusketa ireki dute Arizkongo Bozate auzoan duten Gorrienea museoan. Urtarrilaren 13a bitarte egonen da zabalik, larunbat eta igandetan. Larunbatetan, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era; igandetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Azken 9-10 urteotan klasikoa bihurtu da, eta urtetik urtera zabalitzen ari den erakusketa honetan, aurten 174 jaiotza bildu dituzte, baita bere herrialdeko berezitasunekin. Hasieran bilduma partikular moduan sortu zena, haundituz joan da jendearen ekarpenekin. Zituztenak erakusten hasi baziren, bilduma laster garatu zen haien bidaietatik ekarritakoekin eta lagunek oparitutakoekin. Peru, Argentina, Txile, Kuba, Guatemala, Brasil, New Orleanas, Ekuador, Egipto, Maroko, Venezuela, Sidney, Hong Kong, India, Tailandia, Portugal, Eskozi, Segovia, Mallorca... hainbat dira ikusgai paratutako jaiotzen jatorriak. Eta bertakorik ere ez da falta, argakizan ageri den horixe da, hain zuzen, Euskal Herriko bat, kasu honetan kosta aldekoa..

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

POTTOKI

Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenerdik
larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060
N. 121-8.66 km
L. AMAIUR

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Harrobiari buruzko herri kontsulta tramitatzea onartu du udalbatzak

Miguel Angel Garaioak NaBaiko zinegotzi kargua hartu du

Maite OTEIZA

Abenduaren 17ko udalbatzarrean onartu zuen Baztango Udalak Erdizko harrobiari buruz herri kontsulta egiteko proposamena tramitera onartzea. Hala, proposamena Nafarroako Gobernura bidaliko da. Herri kontsulta egiteko ekimena bortz herrietako alkateek aurkeztu zuten udalbatzarrean, bildutako 985 sinadurekin. Horietatik 954 onartu ziren, 6.353 laguneko zentsotik sinaduren %10a baino gehiago. Beraz, herri kontsulta aitzinera eramateko nahikoa.

NaBai taldeak ere badi bere proposamena, eta kontsulta batzarreen bidez egitearen aldekoa da, aitzinetik informazio eta eztabaida kanpaina eginez.

Hala, baliteke kontsultarako bi ereduak aitzinera eramatea: bat batzarreen bidez eta bertzea herri kontsultaren bidez. Azken hau urbetete luzatu liteke.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Miguel Angel Garaioa da NaBaiko zinegotzi berria Baztango Udalean.

MIGUEL ANGEL GARAIOA NABAICO ZINEGOTZI BERRIA

Udalbatzar berean hartu zuen kargua Miguel Angel Garaioak. Bera izanen da, NaBaiko zinegotzi berria, Rakel Goñi elbetearrak dimisioa aurkeztu ondotik, honen kargua betetuko duena. NaBaiko zerrendan, Garaioaren aintzineko hiru hautagaiek (Carlos Garaikoetxea, Izaskun Etulain eta

Mirentxu Oiartzabal) uko egin zioten karguari eta Garaioak (EAJ) bere postua hartu du.

«LEGEZ KANPOKO» OBRAK

Eguneko bertze gaia Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuko kontseilariak Udalarari «legez kanpoko» sei kontratazio bertan behera uzteko egindako eskaria izan zen. Egindako obra

gehienak maiatzeko uholdeek eragindako kalteak konpontzeko izan dira. Alkateak bere garaian obrak «premiakozkoak» zirelako egin zirela argudiatu zuen. Abenduaren 17ko plenoan eskakizuna ontzat eman eta obrak «zuzendu» ziren azaroaren 9ko dokumentazioa bidaliko zutela adostu zuten. Horrez gain, Kontratazio Batzarrari eretxostena eskatuko zaio.



Baztango ipuinekin liburua eta CDa

Xorroxin irratia eta Dindaia fundazioaren eskutik, bertako euskarazko argitalpen berria eskuratu dugu: *Baztango Ipuinak*. 27 ipuin argitaratu dira, bi modutan: idatzian eta ahozkoan (CD batean). Lan honen arduraduna Paskual Rekalde amaiurra izan da; ahotsak bildu, grabatu, editatu... Berroetako Fermin Gartxitorenak egin ditu eta marrazkiak Josexto Apeztexea erratuzurrak. Liburua osatzerakoan hiru iturri erabili dira: Azkueren *Euskalerrinen Yarkintza*; Nafarroako Gobernuak eta Balleko Etxeak argitaratutako *Baztan solasean*. Ahozko tradizioaren bilduma eta Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak ateratako *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Paskualek erran bezala, «espero dugu etorkizunean lan honen edo halatsukoek argia ikusteak Baztango euskararen edo kulturaren onerako. Halabiz!». 10 eurotan Axular, Nafarpress, Oskorri eta Fantxiken.

Maderas
GOMEN
Tel: 948 560 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerioak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

Tfno.: 948 561 468
Mug.: 630 354 818
Santiago, 59 2C
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Hilaren 15a arte Sorginen Museoa eta lezea itxita egonen dira

Bisitari aunitz ibiltzen ez denez orain, obrak egiteko baliatuko da

ttipi-ttapa

Bai lezean baita Sorginen Museoa ere lan batzuk egin behar direla-eta, eta sasoi honetan bisitari aunitz ibiltzen ez direla profitatuz, toki hauek itxita egonen dire urteko lehenbiziko 15 egunetan.

Bertzalde, aipatzeakoa da, orain arte Udalak lezearen kudeaketa enkantera ateratzen zuela eta partikularren esku uzten zuela honek kudea zezan. Horrela izan da azkeneko 24 urteetan. Baina urte berriarekin batera, 2008tik aitzinera orain arte Museoa eta Errota kudeatu dituen Udalaren turismo enpresa berak gestionatuko du lezea ere. Beraz, bertze langile batzuk ikusiko ditu-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Eguberrietako apaingarriak herri guztian

Eguberrietan sartu orduko herrian ere nabaritu da hori. Abenduaren 14-15eko aste hondarrean jarri ziren gure heriko karrikako apaingarriak: Udalak betiko izarrak eta Zorionak jarri zituen, eta Guraso Elkarrekin argazkian ageri den olentzero dotorea paratu zuen plazan. Aurtengo berrikuntza Herriko Etxeko balkoian jarritako argiak izan dira.

gu lezeko atean, eta seguraski bertze ordutegi

bat ere izanen du. Baina xehetasun horien

guztien berri aitzinera-go emanen dugu.



PERTSONAIA

Javier ITURRIA

‘Sormari viva’ bere bigarren lana kaleratu du

Duela bortz urte Down Sindromeari buruzko bere lehen eleberria idatzi zuen Gartzaingo Bentzaharrean sortutako Javier Iturriak. Arrakasta handiko nobela izan zen. Oraingo hau, *Sormari viva* izeneko lana bere bigarren nobela da eta honela aurkeztu digu protagonista: «Sormari, gazte erlijioso eta Etxalariko Didier misiolariaren eskuineko eskua, gainbeheran doa pixkanaka, Pascal Delacroixek Nagumeko bere misiora egiten dion bisita dela-eta...». Elizondoko liburutandean salgai paratu du eta bitxikeria gisa, baren gutunazal bat sartu du, zigilu eta guzti, norbaitek zer bait erran nahiko balio.

Iñaki Alzuet margoak
 Futbola - Basmak
 Dekorazio (estalki, belakak...)
 Plaketa - Letrak eta hermitzabaitak
 Karmela Etxe - Landibar Auzo - 31711 URDAZUBI
 Tfnoa: 659 862 417

ARMUA
 Jatetxea
 Tel: 948 599 131
 Zugarramurdi errep. 3. km
 URDAZUBI

HERRIKO
 ETXERO
 EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
 Tel: 0559542519
 Maizan eta Vénisique
 KADA

BAR-OSTATVA MON
 ZATOZTE TRAGOA EDATERA
 ESTANCO - TEBACO DENDA
 ANZAN-BORDA
 VRDAX - VRDZVBI

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
 300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
 Euskal Herriko preziorik hobereak
EGUNERO IREKIA
 Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SARA

Zortzi hilabeteren ondotik, egun gutti falta dira lezeen idekitzeko

Barne guztia garbitu eta sistema elektriko guzia berriztatu da

Xan HARRIAGUE

Oraindik eguna zehaztua ez bada ere, herriko lezeak hilabete honetan irekiko dituzte atak. Joan den maiatzeko uholdeen ondorioz, hetsiak egon dirazortzi hilabetez. Orduan, urak kalte ikarragarriak egin zituen, eta leku txarrean izaki, lanak luzatu dira. Lehenik, barne guztia garbitu behar izan da gehienetan orgatxo eta palekin. Ondotik, sistema elektriko guztia berritu da, bai soinuarena, baita argiena ere. Hilabete horiek baliatu dituzte berrikuntza batzuen egiteko, bertzeak bertze, argitasunean eta leku berri batzuk agerian ematean. Kanpoaldean ere lan anitz egin da, hala inguru guztia garbitu, nola paretak eta zainketa sistema berritu.

Lan horiek guztiak 400.000 euro kostatuko dira. Herriak 200.000 euro ordainduko ditu, eta Akitaniak eta Kontseilu Orokorrak bertze



100.000 euro. Gainera, 100.000 euroak aseguruarekin negoziatzen ari dira oraindik.

Urtean 110.000 lagunek bisitatzen dituzte lezeak, eta herriarentzako diru sarrera 250.000 euro ingurukoa izaten da.

ARGAZKIAK: UTZITAKOA ETA VÉRONIQUE CHEVALIER

Goiko argazkian lezeen aitzinaldea ageri da eta beheko honetan, berriz, barnealdea. Berrikuntzekin irekiko dituzte laster Sarako lezeak.



FLASH

Pilota desafio

Urtarrilaren 12an, pilota desafioa jokatu da Pleka trinketean. 18:00etatik aintzina, Lapurdiko selekzio bat nafar baten aurka arituko da. Ondotik erromeria egingen da Kiki Bordatxok alaiturik. Ziburuko Piarres Larzabaleko ikastetxeak antolatuta, eta biltzen duten sosa-rekin urte hondarreko bidaia finantzatu du.

Joko Berri txapelketa

Sarako Izarra pilota elkarteak antolatzen duen Joko Berri txapelketa urtarrilaren 21ean hasiko da. Urte guziz bezala 4 mailatan banatuko da, eta parte hartu nahi dutenek heldu den ortziralara arte badute 0559542919 edo 0559542369ra deitzeko astian, ahal dela bazkalteko eta afaltzeko tenorean. Finalak apirilaren 5ean jokatu dira.

Urteko abonamenduak

Ttipi Ttapako abonamenduak hilabete honen bukaera baino lehen berritu beharko dira. Aldizkaria hartu nahi duten guziek, haien izena, deitura, helbidea, telefono zenbakia eta 52 euroko txeki bat utzi beharko dituzte Herriko Etxeko Edantegian.

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industriaidea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

bentamiguel
denda, jateketa eta ostaldea
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa · ☎ 948 631 209

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491

Mendaketa plaza, 34. ZUBETA

SENPERE

Euskaltzaindiako zuzendaritza Senperen bildu da Zaldubiren omenaldiaren karietarat

Hiru suhiltzaile ohoratu dituzte hiru gazte sartu diren egunean

Franck DOLOSOR

Euskaltzaindiako arduradun gorenak Senpereko Herriko Etxean bildu ziren joan den ortziraletan. Beren bilkurak Bilboko egoitza nagusian egiten dituzte gehienetan baina tarteka bertze herri batean ere biltzen dira, zerbait ospatzen dela. Aldi honetako aitzakia Gratien Adema Zaldubiren heriotzaren mende muga izan dute. Abenduaren 10ean, ehun urte bete ziren apaiz euskaltzalea zendu dela. Horren kari, oroitarri bat ezarri zuten bere ohoretan eliza ondoan. Euskararen

akademiako kideek Zaldubi ohoratu nahi izan zuten oroz gainera, 1814an jadanik akademia baten beharra ikusi baizuen. Euskaltzainek eta euskaltzale batzuek bere biziari eta lanari buruzko hitzaldiak eskaini zituzten. Henri Duhauk liburu bat plazaratu du Zaldubiri buruz, ondoko **TTIPI-TTAPAN** luze eta zabal aipatuko dugu horren berri.

Zaldubik bere izena eman dio herriko ikastolari eta Elkartetxeko bilkura gela bati. Ondare aberatsa utzi du, bertzeak bertze *Zazpi Euskal Herriek bat egin de-*



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Olentzero Senperen

Denok hain maite dugun ikazkina gure herrirat etorri zen abenduaren 21ean. Hurrek, eta lehenengo gazteek ere, ongi etorri beroa egin zioten.

zagun kantua. Euskaltzaindiak lan gaitza egiten du euskara batzearen alde eta baita euskalkiak aztertzearen eta atxikitzearen alde. Senper tar batzuek ere parte hartu dute lan honetan, hala nola, Dominique Dufau notarioa eta auzapeza zenak, Paul Guilçou Orkaztegikoak, edo Peio Jorajuriak, bertzeak bertze. Dufau ohartzeko oroitarri bat emanen da bizi izan zen

azken etxean. Omenezaldi hau otsailaren 3an eginen da.

Hiru suhiltzaile omendu dituzte

Santa Barbara zela eta, beren zaindariaren egunaren kari, herrian biziki ezagutuak diren hiru suhiltzaile ohoratu dituzte. Pantxo Bravek eta Jean-Léon Dorraçaguek urrezko medaila izan dute 30 urtetan egin duten lana es-

kertzeko eta Tote Lopezi hori-gorri domina (*vermeil*) eman diote 25 urteko lanarengatik. Eskualdeko hautetsiek eta herriko suhiltzaile guziek parte hartu duten besta huntan, hiru suhiltzaile berri sarrarazi dituzte herritar guziak beti laguntzeko prest den taldean.

Bere aldetik Jean-Joseph Jorajuria kapitainak erran du erretiroa hartuko duela.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



**Bixente
IRANZO PERIS**

Donostian, 2007ko azaroaren 18an

Azaroan joanda laguna
guk ahantziko ez duguna
Berako Lurraren Eguna
hainbeste maite zenuena

LURRAREN EGUNA, BERA

EZKONTZAK

Angel M^º Irujo Sakete eta Ester Arrupea Plaza, Iruñekoak, abenduaren 15ean Lekarozen.

SORTZEAK

Naiara Elizalde Kamino, Urdazubikoa, abenduaren 20an.
 Martin Jimenez Etxeberria, Elizondokoa, abenduaren 2an.
 Olaia Ruiz Juanena, Doneztebekoa, abenduaren 6an.
 Alejandro Ibañez Etxeberria, Doneztebekoa, abenduaren 10ean.
 Jonai Mitxeo Oskotz, Doneztebekoa, abenduaren 14an.
 Leire Martinez Aginaga, Doneztebekoa, abenduaren 19an.

HERIOTZAK

Manuela Perez Sanchez, Elizondon, abenduaren 13an, 86 urte.
 Beatriz Uria Ozerin, Elizondon, abenduaren 18an, 81 urte.
 Inocencia Otxandorena Andiarena, Sunbillakoa, abenduaren 14an, 90 urte.
 Tomas Burlada Matxikote, Arantzakoa, abenduaren 14an, 77 urte.
 Juana Unsain Iturbide, Arantzakoa, abenduaren 14n, 92 urte.
 M^º Concepcion Labaien Lasarte, Leitzakoa, abenduaren 15ean, 90 urte
 Rosalia Braña Inda, Arizkungoa, abenduaren 16an, 53 urte.
 Saturnino Etxeberria Jorajuria, Lesakakoa, abenduaren 18an, 86 urte.
 Joxe Arregi Urkiola, Leitzakoa, abenduaren 18an, 95 urte.
 Prudentzio Sanzberro Elizalde, Etxalarkoa, abenduaren 20an, 86 urte.
 Pedro Lazkano Arrieta, Berakoa, abenduaren 22an, 76 urte.
 M^º Asuncion Mendikoa Iriberrri, Arizkungoa, abenduaren 21ean, 97 urte.
 Beatriz Pandelet Unzalu, Berakoa, abenduaren 24an, 47 urte.
 Markos Maia Elizainzin, Lesakakoa, abenduaren 25ean, 82 urte.



Tomas BURLADA MATXIKOTE

Arantzan hil zen 2007ko abenduaren 14an, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita santuaren

Bedeinkapena hartu ondoren
GOIAN BEGO

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

ZURE FAMILIA



Antonio LASARTE

Beran, 2007/XII/06



Gure Txokoaren sortzaile taldekoa

Eskerrik asko

GURE TXOKOA ELKARTEA



Fermina Loiarte Loiarte

Maria eta Domingoren alaba, Bikainbonda eta Karretan (Goizurta) bizitua.

URTEURRENA

Leitzan 2007ko ibeltzaren 2an hil zen 82 urte zituela.

Ama ez uste handia guretzat zu hala hil beharra ez digu aisa ahartuko zure bizinahi eta irrifarra Gurekiko zenuen kezka, eta beti ongi egin beharra Gure hitoztan ari du zure por ixil eta indarra

Zure senar Loentxo Perunenak eta familia, maiztasunez.



Aitor APEZTEGIA *Sunbillako ehiztaria*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Ez baduzu zakurrik ez da oilagorrik, txapelaren zati handia Simbarena da»

Aitor AROTZENA

Joan den azaroaren 24an jokatu zen Erroko jaurerrian Nafarroako oilagor ehiza txapelketa. 23 partehartzaile izan ziren, tartean sunbildar bat, Olegiko Aitor Apeztegia Bertiz. Parte hartu bakarrik ez, lehen postua ere lortu baitzuen, Simba zakurraren laguntzarekin. «Denak leku beretik ateratzen gara eta oilagorra dagoen lekura joateko suertea izan behar duzu. Nik bi bota nituen, hirugarren bati ez nion tirorik ere bota eta laugarrena eskapatu zen. Horrekin kontrolera joatera arriskatu nintzen eta nahikoa izan zen irabazteko». Aitor Apeztegia «arrot gazterik aitarekin usotan» hasi zen ehizan, «baina oilagorretan 15-16 urterekin, anaia eta biek zakurkume bat hartu genuen eta erakusten».

Izan ere, Nafarroako txapelaren zati handi bat Simba zakurrarena dela aitortu digu Apeztegiak: «Ez dakit bakoitzak zer zati dugun, baina zakurrak aunitz, hondarrean ez badu-

«Inguru honetan hezetasun handia dugu, sasi aunitz eta zikina. Beharbada ilearengatik edo oilagorretarako egokienak dira setter zakurrak».

zu zakurrik, ez da oilagorrik eta bere meritua eman behar zaio». Zakurra kompetiziorako prestatzeak lan handia ematen du eta txapelketa non jokatu behar den ere kontuan hartzekoa dela aipatu digu Sunbillako ehiztariak: «Bagadian bertze zakurrek ere balio dute, baina ezpeldegian, oilagorrek aunitz korritzen du atera baino lehenago eta ezpelean, lana ongi egiten duen Simba bezalako zakurra behar da».

«BEREZKOA DUEN ZAKURRAREKIN ORDU AUNITZ SARTU BEHAR DIRA»

Zakurrak berezkoa izan behar duela uste du Apeztegiak eta berezkoa

• Aitor Apeztegia Bertiz, 32 urteko sunbildarrak, 'Simba' setter zakurrarekin Nafarroako oilagor ehiza txapelketa irabazi zuen azaroaren 24an Erroko jaurerrian.

• Abenduaren 15ean Espainiako txapelketan parte hartu zuen Sabaizarren, baina ez zuen halako suerterik izan: «Tokia ez nuen ongi aukeratu eta aldatu nintzenerako berandu zen».

• Sei urte bazituen konpetitu gabe. 2007ko Nafarroako txapela irabazita, aurtengo txapelketarako lekua ere segurtatua dauka.

duen zakurrarekin «ordu aunitz sartu behar dira, oilagor aunitz erakutsi eta inportanteena, pazientzia handia eduki. Urte batekin igual ikusten duzu balio duela, baina ez zuk nahi adina, baina handik urtebetera igual egiten du kolpe haundia». Berak setter arrazako zakurrak erabiltzen ditu, «inguru honetan hezetasun handia dugu, sasi aunitz eta zikina. Beharbada ilearengatik edo, egokienak dira setterrak, oilagorretarako manera onak izaten dituzte». Simbak lau urte ditu eta oilagorretarako adin egokian dagoela uste du Aitorrek: «Zakurrek bere zikloa izaten dute eta 4-9 urte artean onenean egoten dira, 10 urterekin aunitz jausten dira».

Abenduaren 15ean Espainiako txapelketan parte hartu zuen, baina ez zuen halako suerterik izan eta ez zen ohorezko postuetan sailkatu. «Oilagor aunitz bazen, baina ez nuen ehiza eremuarekin asmatu. Bertze nafar batek, Zubiriko Esainek irabazi zuen, 7 oilagor bota baitzituen».

FUTBOLA

Doneztebek nesken taldea zelairatuko du

Aritz Arriola eta Mikel Ibarra sunbildarrak dira entrenatzaileak

A.A. Erregionaleko lehen mailan eta bertze kategoria tikiagoetan ari diren mutilekin batera, Doneztebe Futbol Taldeak nesken taldea zelairatuko du aurten. Male-rreka, Bertizarana, Sunbilla eta Baztango 16 neska ari dira entrenatzen, Aritz Arriola Capdequi eta Mikel Ibarra entrenatzaile sunbildarren erranetara. 2007ko azaro hasieran hasi ziren entrenatzen eta astean behin biltzen dira Doneztebeko eskolako zelaian. Momentuz ez dira konpetizioan jokatzeko hasi, bai-

na espero dute laster hastea. Posible litzateke otsailean edo martxoan kopa txapelketan parte hartzea, baina ez da oraindik erabakia, Aritz Arriola entrenatzaileak aipatu digunez: «Kontuan hartu behar da neska hauetako inor ez zela lehen futboleko aritua. Bakarren bat eskubaloian aritu zen, baina futboleko oinarritzko kontzeptu tekniko eta taktikoak lantzen ari gara oraindik. Egia errateko neskek beraiek badute konpetitzeko grina izugarria eta beti entrenamenduak elkarren arteko partidatxo batekin



ARGAZKIA: ZALDUA

Eskolako futbol zelaian entrenatzen dute Doneztebe futbol taldeko neskek.

akitzten dugu. Baina hor-tik konpetizio ofizial batera salto handia dago. Lehenik lagunarteko partida batzuk jokatu ditugu eta beharbada ego-kiagoa izanen da hurrengo denboraldian hastea txapelketetan».

Neska hauek gehienak 12, 13 eta 14 urte dituzte. Dena den, taldea futboleko aritu nahi duen edozein neska-entzatzat irekia dagoela oroitari du Aritzek: «Gazte-agoak edo zahar-agoak izanda ere, on-gietorriak izanen dira».

DONEZTEBE F.T. (NESKA KADETEAK FUTBOL-7)	
Itxaso ARRIETA AGIRRE	SUNBILLA
Jone IRIBARREN IMAZ	SUNBILLA
Itxaso IRIARTE IRATZOKI	NARBARTE
Irati ARRIETA AGIRRE	SUNBILLA
Ainhoa LARREA LEKUBERRIA	ZUBIETA
Maidor LEIZEAGA UNTSAIN	ZUBIETA
Nekane IRURETAGOiena ARREGI	DONEZTEBE
Olaia GANDARA URTXEGI	SUNBILLA
Izaro SUKILBIDE MARTIN	ELGORRIAGA
Ana SARRATEA ARREGI	DONEZTEBE
Laura ERASUN ELIZONDO	DONEZTEBE
Tamara DESCALZO OKBA	DONEZTEBE
Maria TELLETXE APEZTEGIA	DONEZTEBE
Sara AZKARATE ELIZONDO	DONEZTEBE
Amaia ELIZAGOIEN VARELA	ORONÓZ-MUGAIRI
Amaia ISTILART ETXEBERRIA	ARIZKUN
Entrenatzaileak:	
Aritz ARRIOLA CAPDEQUI	SUNBILLA
Mikel IBARRA IBARRA	SUNBILLA

Gure Txokoa erraz nagusitu zen Bortzirietako derbi nagusian

3-0 irabazi zion Beti Gazteri Matzadan

A.A. Gure Txokoak 3-0 irabazi zion Beti Gazteri abenduaren 15ean Matzadan jokatu-tako Bortzirietako futbol derbi nagusian, Gipuzkoako Erregionaleko 1. mailan.

Bortz minutu eskaseta laburbildu daiteke partidua eman zuena. Izan ere, lehen zatiko azken bortz minututan,

ordura arte joku eta aukera handirik gabeko partida irauli eta erabaki baitzuen etxeko taldeak, Iñaki Irazoki, Jon de la Cruz eta Iñaki Eskuderoren hiru golekin. Bigarren zatia soberan izan zen. Beti Gazte ez zuen inoiz arrisku itxuririk eman eta Gure Txokoak lan handiegirik gabe eutsi zion markagai-

luari. Beratarren laugarren gola lesakarren lehenbizikoa baino hurbilago egon zen.

Bi taldeak puntu premiarekin zelairatu ziren Matzadan. Beti Gazte liga hasiera on baten ondotik azken bi partidak galduak zituen eta garaipena behar beharrezkoa zuen, goitiko postuetatik ez urruntze-



ARGAZKIA: LUIS IRAZOKI

Kiroltasun handiko derbia izan zen, jokatzeko hasi aitzinetik nahiz partidaren.

ko. Gure Txokoa, berriz, jautsiera postuan zegoen, eta puntuak behar beharrezkoak zituen hor-tik ateratzeko. Azkene-an, lesakarrak aunitz urrundu dira iagoera pos-

tuetatik eta beratarrek ere ez dute lortu jautsiera postuetatik ateratzea, gibe-leko postuetan zeuden talde gehienek ere irabazi egin baitzuten aste hondar honetan.

AGENDA

egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

HAURRENTZAKO AISIALDIA

BERROETA

Urtarrilaren 3an, haurrentzako tailerra, 16:00etatik 18:00etara. Izen ematea, nor bere eskolan egin beharko da.

IRURITA

Urtarrilaren 4an, haurrentzako ipuin kontalaria zentro zibikoan, 16:30ean.

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Azaroaren 17tik urtarrilaren 6ra, Roger Bravard margolariarekin erakusketa: 63 urtetako pintura, 1944tik 2007ra. Asteazkenetik igandera Klaustroan, 14:00etatik 18:00etara.

ELIZONDO

Abenduaren 5etik urtarrilaren 5era, *Meatzetatik Baztanera* izeneko erakusketa ikusgai izanen dira Arizkunenean. Ana Mari Marin, Jose Mari Apezetxea, Kepa Arizmendi, Tomas Sobrino, Jose M^a Rezola, Xabier Soubelet, Begoña Durruti, Ismael Fidalgo, Angel Aja et, Amalio Garcia eta Marcelino Bañalesen lanak ikusgai.

HITZALDIA

ELIZONDO

Urtarrilaren 25an, *Euskara eta Nafarroa: diskriminazioaren kudeaketari buruzko hitzaldia* eskainiko du Julen Urbiolak, 20:00etan Arizkunenean.

INAUTERIAK

ARANTZA

Urtarrilaren 17tik 19ra, Arantzako inauteriak. Xehetasunak hurrengo aldizkarian.

TELEBISTAKO TXOKOA




Errege Kabalgatak ikusgai ttipi-ttapa telebistan

URTE BERRIARI EGIN DIO TELEBISTAK

Urte berria hastearekin batera, lanean ere hasia da **TTIPI-TTAPA TELEBISTA**. Aldaketa haundiegirik ez da izanen programazioan, baina Eguberrietako ospakizunak akautzeko eta Olentzerori aio erran ondotik, Errege Kabalgatak izanen dira eskualdeko herri gehienetan larunbat honetan, urtarrilak 5. Horietako batzuen berri emanen du **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** heldu den urtarrilaren 7an, asteleheneko albistegietan. Beran, larunbat arratsaldean ibiliko dira Erregeen pa jeak herriko karrketan barna gutunak biltzen eta arrats partean eginen da Errege Kabalgata, Itzea auzotik abiatu eta Herriko Etxeko

plazara. Lesakan, berriz, 17:00etan Erregeen postariak eskutitzak bilduko ditu Plaza Zaharrean; 18:00etan Errege Magoek musika banda, tritikixa eta euren laguntzaileekin batera herrian barna ibiladia eginen dute eta 19:00etan pilotalekuan haur guztiei harrera eginen diete. Arantzan, ilunabarreko meza ondotik elizara ailegatuko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar eta euren laguntzaileak tritilarri eta panderojoleekin. Errege Magoak agurtu ondotik, opariak banatuko dituzte; Igantzin, Sunbillan, Donezteben eta eskualdeko bertze herri aunitzetan ere eginen dira kabalgatak.

DISKAK



KATAMALO
Bihotz Bakartien Kluba
GOR, 2007

Bihotz Bakartien Kluba (bbk) talde literarioak prestatu duen emanikizun berria da *Katamalo*. Bertan larrabertzuko taldeak poesia eta musika bildu ditu. Poemak kantu bihurtu eta hausnarrerako bazka eskaintzera dator berriz ere *Bihotz Bakartien Kluba*. *Katamalo* erraten diogu euskaldunok gure aurpegia bertze bat bihurtzeko erabiltzen dugunari. Disko honetan *Katamalo* ikuskizunean entzu daitezkeen kantu erranguratsuenak daude. Ikuskizun honen abiapuntua literarioa izanagatik —diskoarekin batera Gotzon Barandiaranek izen bereko poema liburuak kaleratuko baitu— kantuek hitzen pareko garrantzia dutela iritzita grabatua da. Lan honetan, Gorka Urbizu (Berri Txarrak), Nerea Urbizu (Itzalak) eta Jon Piris (Ruper Ordoika) gehitu dira Aintzina, Alex eta Mugarri.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (abenduaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 36,00 € (+11,00)

Zerri gizena
0,945 € kilo. (+0,030)

Zerramak:
0,290€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)

1.koa 3,79 (=)

2.koa 3,26 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,22 (=)

1.koa 3,91 (=)

2.koa 3,36 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 140,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruak 110,00 (=)

idixkoak 145,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,08/3,18

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,40/7,90

8-10 kilokoak: 5,70/5,90

JAKIN BEHARREKOAK

Ostatu eta jatetxeek iturriko ura eskaintzea eskatu du Irachek

Legeak Nafarroan hala agintzen duela dio elkarteak

Ostatu eta jatetxeek bere bezeroei iturriko ura eskaintzea eskatu du Irache kontsumitzaileen elkarteak. Iracheren arabera, legeak hala agintzen du, oinarritzko zerbitzua da eta hori gutti balitz, familien ekonomiarako eta ingurumenerako mesedegarria da. Elkarteak Iruñean egindako azterketak dioenez, 21 ostatu eta jatetxetatik erdiak baino gehiagok ez du iturriko ura eskaintzen eta botilakoa kontsumitzera behar du bezeroa.

Legearen arabera, Nafarroan ostalari-tzako establezimendu bat ireki ahal izateko iturriko ura izatera derrigortuta dago eta bezeroei, «kontsumorako egokia den ura eskaintzera». Botilan dagoen urak, beharrezkoa ez den gas-tua sortzen dio kontsumitzaileari. Botila



Gizakiontzat oinarritzko beharra da ura.

ttikiek euro eta euro eta erdi artean daude eta botila handiak bi eta bi euro eta erdieren artean. Honela, markaren arabera, botilatutako uraren litroa iturriko ura baino higitzez garestiagoa da, zenbaitetan 10.000 aldiz garestiagoa. Iturriko ura ingurumenerarekin errespetagarriagoa da, ez duela-ko edukiontzirik behar. Botilen %80a

plastikozkoa da, %10 polietileno egina, %7 beirazkoa eta PVCa kasik desagertua dago. Iturriko ura produzitzeak eta banatzeak ere, energia aldetik aurrezpen handia ekarriko omen luke. Gaur egun, herrialde garatuenetan iturriko uraren kontsumoa bultzatzen ari dira eta zenbait lekutan, botilako ura erostea debekutzen.

«Nafarroan iturriko ura edateko ohitura daukagu». Hala ondorioztatu du Irachek, herritarren %93ak hori egiten baitu egunero. Horrek erakusten du herritarrek iturriko uraren kalitatea ona dela uste dutela. Bertze lekuekin konparatuz, botilatutako uraren kontsumoa ttikia da Nafarroan.

Arrazoi guzi hauek kontuan hartuz, Irachek iturriko ura eskaintzea eskatu die ostatu eta jatetxeei. Kontsumitzaile elkar-tearen ustez, bezeroen eskubidea da eta hori ez egitea legez kanpoko ere izan daiteke. Zenbait ostatutan, iturriko urarekin pitxerrak jartzen dituzte barran eta ondoan, edalontziak, bezeroek nahi adina har dezaten. Hori izanen litzateke segitu beharreko erueda, Iracheren ustez.

LIBURUAK



Iparretarrak. Erakunde baten historia

Eneko BIDEGAIN

GATUZAIN, 2007

Iparretarrak erakunde armatua 1973an agertu zen lehen aldiz, eta azken ekintza 200ko udazkenean egin zuen. Zauriturik eragiten ez zuten atentatu andana baten egilea izateaz aparte, gogoeta politiko bat ekarri zuen taldea izan zen. Ipar Euskal Herriko abertzaletasuna lehenago sortu bazen ere, kontzientzia baten irartzartzea eragin zuen. Euskal Herriaren arazoa ez dela Bidasoaren hegoaldera mugatzen erakutsi zuten IK era-

kundekoek. Ipar euskal Herriaren euskaltasunaren egoera larria zela salatuz, han ere, borrokatzeko beharra aldarrikatu zuen. Mugimendu zabal baten barnean kokatzen zuen bere burua, eta ez mugimendu baten gidarizat. Hala, liburu hau IK egin zuten militante anitzen lekukotasunekin osatua da, bertzeak bertze, Filipe Bidart, Gabi Mouesca eta Ttotte Etxebeste, baita erakunde horren inguru hurbila eta urruna osatzen zutenekin ere.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI IRTEERAK

LESAKA

Urtarrilaren 20an, San Antonera mendi ateraldia antolatuta du Beti Gaztek elkarteak. Hitzordua: 8:00etan Plaza Zaharrean.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Abenduan eta urtarrilean, II. Bertso eta paper eta ipuin lehiaketa: 6-11 urte; 12-14 urte eta 15-17 urte. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 11n bukatuko da.

Abenduan eta urtarrilean, gutun lehiaketa eta piropo lehiaketa 18 urtetik goitikoendako. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 11 izanen da, Baztandarren Biltzarrean egoitzako postontzian.

Urtarrilaren 18an, Baztandarren Biltzarrak antolatutako bertso paper, ipuin, gutun eta piropo lehiaketen sari banaketa Arizkunenean, 19:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 5ean, Green Manalishi + thc-en kontzertua Lur dantzalekuan, 00:00etan.

LESAKA

Urtarrilaren 20an, Egan taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean, 18:30ean.

ANTZERKIA

BERA

Urtarrilaren 13an, Instantean: mugimendua, dantza, musika, bideoa, inprobisazioa. Lamixene Bat-ek antolatua Kultur Etxean.
Urtarrilaren 26an, *Ni sin ti ni contigo*, trilogía del humor umorezko antzerkia, 19:00eta Kultur Etxean.

Emakumea edozein lanetan ariko litzateke, eskolako orduetan. ☎948 634260.

BERA. Emakume batek lan eginen luke sukaldian laguntzen edo garbiketa lanetan orokorrean. ☎638 276921/ 948 625791.

BAZTAN-MALERREKA. Elizondoko mutil batek igeltsero obra tikiak eginen litzuzke asteburuetan, Baztan-Malerreka inguruan. ☎680461631.

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Ibardinen mutil bat behar da biltegian aritzeko. Otsailetik aitzinera eta frantses pixka bat dakiena. ☎609480646.

DONEZTEBE. Bixen ostatuan zerbitzaria behar da larunbat gauetan aritzeko. ☎948 450383.

DONEZTEBE. Amezitia hospital-ostatuan lan egiteko neska bat behar da. Esperientzia edukitzea eta euskalduna izatea eskatuko da. Baldintza onak. ☎948 450028.

LESAKA. Lindurrenborda sagardotegian zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 637212.

ETXALAR. Herriko Ostatuan fregaderan lan egiteko

persona behar da. Aste tartean lanaldi erdia eta asteburuetan osoa. ☎948 635450.

DONEZTEBE. Sukaldaria behar da Titi ostatuan. Hasiera batean asteburuak libre. ☎948 450271.

BERRIOZAR. Frutategi batean 3 emakume behar dira: 2 lanaldi osoa egiteko eta bertze lanaldi erdirako, jendearen aitzinean esperientziadunak. ☎948 451971 (16:00etatik 20:00etara)

BORTZIRIAK. Igeltsero peoiak behar dira Bortziri inguruan lan egiteko. ☎600386897 (18:00etatik aitzinera).

LEGASA. Arotxa jatetxean zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 456100.

MOTORRA 501 Salerosketak

LESAKA. Opel Kadett autoa salgai, NA-S. Egoera onean eta merke. ☎665741527.

Golf TDI autoa salgai, 2000. urteko azarokoa, aire-klimatizagailua, CD irakurgailua... Egoera onean. ☎620 249262.

Wolsvagen transporter furgoneta salgai, lo egiteko eta bizikleta eramateko prestaturua. 9 urte. NA-AW. ☎662 333787.

Opel Astra familiarra salgai. NA-AT. ☎689 531012.

MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi D10 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3 ate, Opel Zafira, Terrano II 3 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 ate, Galloper Super Exceed 3 ate, Montero 10 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navarra, Frontera 3-5 ate eta Suzuki Jimmy.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

**AUTO IA BERRIETAN
ESKAITZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)**
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGAREN ESKUKOAK
Renault 19 Chamade, Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Megane II 1.5 DVI 100 CV, Clio Confort 1.5 DCI.

ANIMALIAK

601 Emateko

2 hilabeteko txakurkumea oparitzeko. Artzain txakur eta Collie arrazen nahasketak. ☎652 729101.

DENETARIK 702 Salerosketak

Beretta 300 eskopeta salgai, 12/70 kalibrea, 2 ka-

noi: bat oilagorretarako (zilandrikoa) eta bertzea usotarako (policho). ☎618 934717.

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Bigarren eskuko **bizikleta erosiko nuke**, 10-12 urteko neska batentzat. ☎948 450056.

ttipi-txartela
deitu eta egin zurea!!
948 635 458

KIROL DENDAK			
IPARLA KIROLAK	Elizondo	%8	(30 €tik gora)
ZELA KIROLAK	Bera	%5	
AGARA KIROLAK	Bera	%5	Krud artikulatua
LENTZERIAK			
MARICRUZ	Doneztebe	%10	(30 €tik gora)
MARICRUZ	Elizondo	%10	(30 €tik gora)
DENE	Lesaka	%10	Lentzerian
LIBURU DENDAK			
NAFARPRESS	Elizondo	%10	Liburu eta ikus materialaren testuak eta liburuak eta oparitzeko artikulatua
MAIMUR	Letza	%10	
OPTIKAK			
OSTARGI	Bera	%10	(30 €tik gora)
ARGIBEL	Elizondo	%10	antzu graduatua
ARGIBEL	Doneztebe	%10	antzu graduatua
PENTSUAK			
MENDAUR	Doneztebe	%5	Zakuma, taberna...
TINDATEGIAK			
JAIONE	Doneztebe	%10	(12 €tik gora)
ZAPATA DENDAK			
KALOTXA	Bera	%5	(18 €tik gora)
OSTIZ	Doneztebe	%10	
TXINELKA	Lesaka	%10	

39 komertzioetan deskontuak

ferreteria
Quevedo
TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 - ELIZONDO
Tfnos: 948 580 234 - Faxa: 948 581 210

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

telefono: 67-8 (GEBAKA)
berdigaldu@telefonos.net
Tfnos: 948 637 546
Rg: 609 477 677

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



ANDONI GOIA FAGOAGA beratarak 2 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak multtiko familiaren partetik.



Elko-Nevadako MENTXU ZUBIETA TELLETXEAK urtarrilaren 6an urteak beteko ditu. Zorionak bere alaba eta Lesakako familiaren partetik.



EKINE GARAZO GAMIO gazteluarrak 5 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak ama, Asier eta Markelen partetik. Muxu aunitz gure sorginari.



EKINE GARAZO GAMIO gazteluarrak 5 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak Gazteluko familiaren eta bereziki amatxi Engraxiren partetik.



NAIARA ANSO zubietarrak urtarrilaren 10ean 5 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik. 5 besarkada!



UGAITZ ALDABE TELLETXEAK 3 urte beteko ditu urtarrilaren 16an. Zorionak eta 3 besarkada haundi gure mutiko "txintxuarentzat". Aita, ama eta Izaro.



Arantzako **OSKITZ** eta **SUARRI MADARIAGA OTEGI** 2 urte bete dituzte abenduaren 29an. Aunitz urtez Ximonenbordako familia guztiaren partetik, eta bereziki Araitzen partetik.



Leitzako **ITXARO** ZESTAU GOGORZAK ilbeltzaren 7an 4 urte beteko ditu. Zorionak zure familia guztiaren partetik.



Aunitz urtez Donamariako **OIHAN IRIARTER!** la 4 urte bete dituzu. Segi beti irri polit horrekin. Muxu aunitz Uxuri eta Xubanen partetik.



MADDI ORDOKI AGIRRE beratarak 6 urte bete ditu abenduaren 30ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

ZORIONDU
internet bidez
www.ttipi.net



ZOZKETA

Zozketan parte hartzeko,
urtarrilaren 22a
baino lehen deitu
ttipi-ttapa 948 635 458

- Ordenagailurako euskarazko bideojoa
- 10 urtetik gorako gaztetxoentzat
- Elhuyar Fundazioak egina



Zozketaren **SARIDUNA**
ITXARO ETXAGUE GOIA (Arantza)



Muebles
Telletxea

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12
Tfnoa: 948 450 258 • 948 451 811



Beti bezala
zuen fideltasuna
eskertu nahi dugu



Lurr

urtarrilak 5 larunbata

GREEN MANALISHII

+ t h c

00:00 12€ aurretik 15€ takillan

urtarrilak 12 larunbata

BEEFEATER[®] BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 19 larunbata

JUSTERINI & B BROOKS

BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 26 larunbata

REMEMBER

BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MOZORROTUTA*
SARRERA
DOHAINIK



*60., 70. eta 80. hamarkadak

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Laguntzaileak:

Heineken



Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK